



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko apirilaren 20a

31. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- Galdera, lupus gaixotasuna duten eta Foru Komunitatetik kanpoko ospitale publiko edo pribatuetara bidali dituzten pertsonen buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.)
- Galdera, osasun plan estrategikoaren oinarri izanen den agiria prestatu duen enpresari eta horren kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.)
- Galdera, “Abeltzaintzako ingurumen laguntzak. PDR-FEADER” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.)
- Galdera, Nafarroako Gobernuak krisialdi ekonomikoari aurre egiteko kultura eta turismo arloan hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.)
- Galdera, mendekotasunaren legea aplikatzearen ondoriozko langile-kontratazioei, lanpostuen zerrendari eta aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.)
- Galdera, kultur intereseko ondare deklaraturiko eta Nafarroako kultur ondareari buruzko Foru Legearen arabera banatutako higieizinei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.)
- Galdera, prestatu diren, prestatzen ari diren eta etorkizunean egingen diren plan zuzendariei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.)
- Galdera, 2007an eta 2008an gizarte zerbitzuen arloko jardueretan alta emandako afiliatuen hazkundeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.)
- Galdera, Irunberriko udal plana aldatzeko espedienteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.)
- Galdera, krisialdi ekonomikoa dela-eta lanpostu hutsak izozteak langile publikoen plantillan izanen duen eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.)
- Galdera, Gobernu kontseilarien eta foru administrazioko goi karguen soldatak izozteak diru publikoari ekarriko dion aurrezki errealarari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.)
- Galdera, “Biosegurtasunerako eta ingurumen-hobekuntzetarako dirulaguntzak abeltzaintzako instalazio intentsiboak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.)
- Galdera, Prodecasarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.)

- Galdera, Nafarroako trenbide zaharrak lehengoratu eta bide berdeen moduan erabili ahal izateko plana eta Nafarroan dauden bide berdeetarako plan integrala prestatzeko Nafarroako Gobernuak eginiko jardueri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.)
- Galdera, 2008ko Nafarroako aurrekontuetan kontusail izendunak, aldatuak izan direnak, zituzten entitate artistikoezikiko hitzarmenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.)
- Galdera, etxeko laguntza pertsonala emateko laguntzei eta laguntzaile pertsonalerako eta minimo bermatuentzako laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.)
- Galdera, “Xabierko Frantziskoren kultura ibilbidea” izeneko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.)
- Galdera, “Garapenerako lankidetzaren Nafarroako Agentzia” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.)
- Galdera, “Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.)
- Galdera, “Zahar-etxeen kudeaketa” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.)
- Galdera, “Laguntzak, etxeko laguntza pertsonala emateko” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.)
- Galdera, “Etxeko laguntza zerbitzua zabaltzea ‘365 eguneko beharra-365 eguneko zerbitzua’” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.)
- Galdera, “Familia elkartzeko gunea” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39.or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, lupus gaixotasuna duten eta Foru Komunitatetik kanpoko ospitale publiko edo pribatuetara bidali dituzten pertsonen buruzkoa.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du lupus gaixotasuna duten eta Foru Komunitatetik kanpoko ospitale publiko edo pribatuetara bidali dituzten pertsonen buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 19eko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera

egin du erkidegotik kanpora ospitale publiko eta pribatuetara bidali diren lupusak jotako gaixoen buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

2008. urtean beste gaixo bat gehiago deribatu da Valentziako La Fe ospitalera.

Halaber, 2006. urteaz gero urtero azterketa egiten zaion gaixo bat ere bidali da Bartzelonako Clinic Provincial ospitale publikora, azterketa egiteko.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcelly

**Galdera, osasun plan estrategikoaren oinarri izanen den agiria prestatu duen enpresari eta horren kostuari buruzkoa.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du osasun plan estrategikoaren oinarri izanen den agiria prestatu duen enpresari eta horren kostuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 26ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Osasunerako Plan Estrategikoari (PES-286/08) buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Honako enpresa honekin lankidetzan ari gara Osasunerako Plan Estrategikoa prestatzen: MENSOR Consultoría y Estrategia, SL

2.- Dokumentu hori sortzeak 88.000 euroko aurrekontua du.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko urriaren 3an.

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, “Abeltzaintzako ingurumen laguntzak. PDR-FEADER” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du “Abeltzaintzako ingurumen laguntzak. PDR-FEADER” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 20eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Gracia Iribarren andreak galdera egin du “PDR-FEADER abeltzaintzarako ingurumen-laguntzak” (POR-110/08, idatzizko galdera bihurtutakoa) izeneko aurrekontu-aplikazioari buruz. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak informazio hori atxikitzen duela adierazten du.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria:

**“PDR-FEADER abeltzaintzarako ingurumen-laguntzak” izeneko kontusaila gauzatzeari eta aplikatzeari, eta helburu zehatzak erdiesteari buruzko txostena.**

PDR ABELTZAINZARAKO INGURUMEN-LAGUNTZAK (abeltzaintza ekologikoa eta arrazak)

710001 71230 4700 414208 (\*\*) PDR FEADER abeltzaintzarako ingurumen-laguntzak aurrekontu-kontusaila abeltzaintza ekologikorako laguntzak eta desagertzeko arriskuan dauden arrazentzako laguntzak ordaintzera bideratzen da.

Abeltzaintzarako ingurumen-laguntzak 2004an hasi ziren ematen 2000-2006 PDRren babespean. 2007an, PDR berria abiarazi zenean, alde zurretik laguntza hau eskatu zutenei 5 urteko konpromiso berri bati ekiteko aukera eman zitzaizen, 2007-2013 PDRn jasotzen denez.

Abeltzaintza ekologikorako laguntzak onesteko, kudeatzeko eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen duen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren otsailaren 12ko 35/2007 Foru Aginduak arautzen ditu laguntza horiek. Foru Agindu hori Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren irailaren 5eko 459/2008 Foru Aginduak aldatu zuten.

### **Abeltzaintza ekologikorako laguntzak.**

2008an 34 titularrek eskatu zuten laguntza hori. Horietatik 20k 2007ko eskaera bera egin dute, 9 eskatzaile berriak dira, eta 5ek 2007an hartutako konpromisoa areagotzea eskatzen dute.

Kontuan hartuta, batetik, 2008ko kanpainan aitortutako bazka-azalera eta ALUak eta, bestetik, administrazio-kontrolak eta lurraren gaineko kontrolak ez direla bukatu, behin-behineko laguntza 335.459,77 eurokoa da.

### **Desagertzeko arriskuan dauden arrazentzako laguntzak**

2008an 258 titularrek eskatu zuten laguntza hori. Horietatik 181ek 2007ko konpromisoari eusten diote, 30ek konpromisoa areagotzea eskatzen dute, 12k konpromisoa helarazten dute eta 35 dira eskatzaile berriak.

Kontuan hartuta, batetik, 2008ko kanpainan aitortutako bazka-azalera eta ALUak eta, bestetik, administrazio-kontrolak eta lurraren gaineko kontrolak ez direla bukatu, behin-behineko laguntza 818.866,8 eurokoa da.

PDR FEADER abeltzaintzarako ingurumen-laguntzen behin-behineko zenbatekoa 1.154.326,57

eurokoa da. Laguntzak 2008ko abenduaren lehen astean ordaintzea aurreikusten da.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean.

Nekazaritza Zerbitzuko zuzendaria: Rubén Palacios Goñi

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak krisialdi ekonomikoari aurre egiteko kultura eta turismo arloan hartutako neurriei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak krisialdi ekonomikoari aurre egiteko kultura eta turismo arloan hartutako neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Kultura eta Turismo arloan krisiari aurre egiteko Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

#### **KULTURA**

**1. Hitzaldietara, ikastaroetara eta jardunaldi-  
etara bideratutako kontusailak. Aurreikusitako  
zenbateko osoak eta gastuaren egungo egoe-  
ra:**

Kontusail zehatzei dagokienez, A21002 A2210 2266 332100 "Hitzaldiak, bilkurak eta ikastaroak" kontusaila Artxibo zerbitzuaren eskuetan dagoela adierazi behar da. Kontusail horretan 35.000 euro daude eta dokumentuak berritzeko jardunaldiak egitera bideratuta dago oso-osorik. Aurten 2008ko urriaren 16 eta 17an egingen dira jardunaldiak; beraz, gastuak oraindik ezin dira justifikatu. 572,87

euroko gastua baino ez da ezagutzen, informazio-foiletokoi dagokiena.

Era berean, Liburutegi Zerbitzuak 42.500 euro ditu, liburutegiko langileak prestatzeko A21001 A2400 2266 332200 kontusailean. Horietatik 22.875 euro gorde, 21.120 euro gastatu eta 19.624,50 euroko saldoa geratzen da; dena den, urte bukaeran guztia gastatzea aurreikusten da. Horrez gain, liburua eta irakurketa sustatzeko A21001 A2400 2269 332200 kontusailetik hartuta, "Irakurketa Klubaren Koordinatzaileen II. Topaketa-ri" dagozkion gastuak ordaindu dira: 900 euro gutxi gorabehera. Azkenik, ondare arkitektonikoa hedatzeko A20001 A2110 2262 337100 kontusaila Ondare Historikoaren zerbitzuaren eskuetan dago. Urtero, Kultura Ministerioak antolatzen duen Ondareari buruzko Europako Jardunaldietan parte hartzeko baliatzen da kontusail hori. Aurten, ordea, gastua aldi baterako gordetzeko beharrak eraginda, proiektu hori bertan barneratu da, parte-hartze hori departamentuaren lehentasunetan ez dagoela ulertzen delako.

Kontusail zehatzik gabeko beste jarduera batzuei dagokienez, Lizarran egiten den Antzinako Musikaren Astearen barnean egiten den hitzaldi zikloa gauzatu da. Guztira 1.000 euroko gastua gauzatu da, A20002 A2500 2279 334100 "Programa propioak" kontusaila baliatuta. Era berean, kontusail horretatik hartuta 80.000 euroko gastua egin da, Lizarran egiten diren Erdi Aroko Ikerketen Asteak garatzeko. Une honetan, Aste horien garapenean 64.244 euro gastatu dira dagoeneko, baina gainerakoa ere gastatzea aurreikusten da. Halaber, museoaren zerbitzuen baitan, Karlismoaren Ikerketarako Jardunaldiak egin dira, eta 96.800 euroko gastu baimendua gauzatu da, A20003-A2300-2269-333102 "Ekintza kulturalak

museo propioetan eta informazio-buletina” kontusailetik hartuta. Azken horretatik 21.486,36 euro ordainduta daude dagoeneko, eta urte honi dagozkion fakturak jasotzeko zain gaude.

Gainera, museoen zerbitzuak hurrengo ekin-tzak ere gauzatu ditu: Museoen Nazioarteko Eguna: Zinema- eta kontzertu-zikloa (7.383,79 euro, A20003-A2300-2269-333102 “Ekintza kulturalak museo propioetan eta informazio-buletina” kontusailaren baitan), “La Tierra te sea Leve” hitzaldien zikloa (7.233,04 euro, A20003-A2300-2269-333102 “Ekintza kulturalak museo propioetan eta informazio-buletina” kontusailaren baitan), “La Pintura en los Tiempos del Arte” erakusketaren ondorioz artistekin egindako topaketak (10.985,21 euro, A20003-A2300-2269-333100 “Arte garaikidearen erakusketen programa” kontusailaren baitan) eta jarraian adierazten den Kongresua: Nafarroa Antzinatean. Baskoiak iturri klasikoetan. (2.153,87 euro, A20003-A2300-2269-333102 “Ekintza kulturalak museo propioetan eta informazio-buletina” kontusailaren barruan).

## 2. Argitalpenak Aurreikusitako zenbateko osoak eta gastuaren egungo egoera

Argitalpenen atalak 512.500 euro ditu, liburuak eta beste argitalpen batzuk argitaratzeko aurrekontu-kontusailaren barnean. Horietatik 416.126 euro gordeta daude eta oraindik 96.374 euro daude eskuragarri; dena den, urte bukaeran guztia gastatzea aurreikusten da. Bestalde, liburutegi-zerbitzuak joan den ekainean “En Red...ando en bibliotecas” aldizkariaren lehen zenbakia argitaratu eta zabaldu zuen. Horretarako, 6.542.40 euroko gutxi gorabeherako gastua gauzatu zen, “Liburuaren eta irakurketaren sustapena” kontusailetik hartuta.

Museoen zerbitzuak gauzatutako erakusketen katalogo eta foiletoei dagokienez, Nafarroako Museoak egindako esku-programen argitalpena nabarmendu behar da. Horretarako 348,00 euroko gastua gauzatu da A20003-A2300-2269-333102 “Ekintza kulturalak museo propioetan eta informazio-buletina” kontusailetik hartuta. Halaber, hurrengo katalogoak argitaratu dira: *La tierra te sea leve. Arqueología de la muerte en Navarra*. (17.225 euro, A20003-A2320-2269-333100 “Erakusketen gastuak” kontusailaren baitan), *Julio González en la colección del IVAM* (8.768,71 euro, A20003-A2320-2269-333100 “Erakusketen gastuak” kontusailaren baitan) eta *La pintura en los tiempos del arte* (24.462 euro, A20003-A2300-2269-333100 “Arte garaikideko erakusketen programa” kontusailaren baitan).

Orobat, azken zerbitzu horrek Karlismoaren Ikerketetarako lehenengo Jardunaldien aktak argitaratu ditu (8.201,66 euro, A20003-A2300-2269-333102 “Ekintza kulturalak museo propioetan eta informazio-buletina” kontusailaren baitan) eta ekin-tza kulturalaren zerbitzuak Lizarrako XXXIV. Erdi Aroko Ikerketen Asteen aktak argitaratu ditu; horretarako 3750 euro gastatu ditu inprimatzen, eta 3.000 euroko gastua aurreikusten du hurrengo urtean argitaratuko diren Lizarrako XXXV. Erdi Aroko Ikerketen Asteen akten fotokonposizioa egiteko. Bi gastu horiek A20002 A2500 2279 334100 “Programa propioak” kontusailetik hartuta gauzatuko dira.

## 3. Publizitatea departamentuaren oinarriko programetan.

### Kultura

Publizitaterako aurreikusten den kopurua: 37.867,46 €

Portzentajea programari dagokionez: % 11,8

Gastuaren egungo egoera: Betetakoa

### Udaberriko bira:

Publizitaterako aurreikusten den kopurua: 9.883,07 €

Portzentajea programari dagokionez: % 8,5,

Gastuaren egungo egoera: Betetakoa

### Udazkeneko bira:

Publizitaterako aurreikusten den kopurua: 10.244,97 €

Portzentajea programari dagokionez: % 8,9

Gastuaren egungo egoera: programa betetzeren zain

### Eskola-itunak

Publizitaterako aurreikusten den kopurua: 20.000 €

Portzentajea programari dagokionez: % 9,7

Gastuaren egungo egoera: Betetakoa

### Herriz herri:

Publizitaterako aurreikusten den kopurua: 8.571,21 €,

Portzentajea programari dagokionez: % 7,14

Gastuaren egungo egoera: Betetakoa

### Ikuspuntua

Publizitaterako aurreikusten den kopurua: 22.587,33 €

Portzentajea programari dagokionez: % 7,14,

Gastuaren egungo egoera: Betetakoa

Erriberriko Antzerki Klasikoa

Publizitaterako aurreikusten den kopurua:  
75.000,00 €

Portzentajea programari dagokionez: % 9,14,

Gastuaren egungo egoera: Betetakoa

Eszena

Publizitaterako aurreikusten den kopurua:  
14.581,11 €

Portzentajea programari dagokionez: % 6,30,

Gastuaren egungo egoera: Betetakoa

Nazioarteko Kantu Lehiaketa.

Publizitaterako aurreikusten den kopurua:  
25.319,79 €

Portzentajea programari dagokionez: % 13,3

Gastuaren egungo egoera: Betetakoa

Organo zikloa

Publizitaterako aurreikusten den kopurua:  
6.900,00 €

Portzentajea programari dagokionez: % 17,6

Gastuaren egungo egoera: 4.900 €

Erdi Aroko ikasketen astea

Publizitaterako aurreikusten den kopurua:  
920,00 €

Portzentajea programari dagokionez: % 1,15,

Gastuaren egungo egoera: Betetakoa

Lizarrako Antzinako Musikaren Astea.

Publizitaterako aurreikusten den kopurua:  
21.994,91 €

Portzentajea programari dagokionez: % 21

Gastuaren egungo egoera: Betetakoa

Karlismoaren Ikerketarako Astea

Publizitaterako aurreikusten den kopurua:  
24.793 €

Portzentajea programari dagokionez: % 25,61  
(gutxi gorabeherakoa, amaierako gastu errearen arabera).

Gastuaren egungo egoera: 19.288,82 euro.

Nafarroako Museoaren erakusketak:

Publizitaterako aurreikusten den kopurua:  
63.471,38 €

Portzentajea programari dagokionez: % 12,81,

Gastuaren egungo egoera: 56.471,38 €

**TURISMOA**

Produktu Turistikoen Antolamendurako eta Garapenerako Zerbitzuak helburu hori gauzatzeko, A1110 A1110 2266 432300 "Sektorea profesionalizatzeke jarduerak" aurrekontu-kontusaila du bere esku 2008ko aurrekontuaren barnean. Guztira 120.000 euro. Kontusail honekin arlo honetan Turismo Zuzendaritza Nagusiak antolatzen dituen prestakuntza jarduerak betetzen dira.

Prestakuntza-plan horretan sektoreko kideek adierazten dituzten prestakuntza-eskariak eta iradokizunak eta Departamentuak bere jardura eta helburuei lotuta hautematen dituen premiak barnetzen dira.

2008rako Departamenduak guztira 32 ikastaro programatu ditu honakoei bideratuta: jatetxeak, kafetegiak eta ostatu turistikoak, bidaia-agentziak eta turismo-informatzaileak. Ikastaro horiek Ostalaritza Elkarteak eta Marketing Klubak ematen dituzte. Halaber, Departamenduak aurreko beste ikastaro batzuk antolatu ditu, hautemandako premietatik eratorritako irizpide zehatzei jarraiki.

Horiek guztiak antolatzeko 115.095 euro behar dira guztira, 120.000 euroko kontusail batetik hartzekoak.

*Orokorrean, ikastaroak Iruñean eta Nafarroako 7 herritan ematen dira, eskari gehiago duten lekuei erreparatuta.*

Nafarroako Foru Komunitatean turismoa sustatzeko eskumena duen Turismo Marketingaren Zerbitzuari dagokionez, Turismo Marketingaren Plan Integralaren oinarria osatzen duten sustapen jardueren helburu nagusia Nafarroan bisitari kopurua areagotzea dela azpimarratu behar da; beraz, produktu turistikoak sortzeko egindako inbertsio publiko eta pribatuaren errentagarritasuna ere helburu bihurtzen da.

Turismoa sustatzeko gastua funtsezkoa da; izan ere, Nafarroako proiektu turistikoaren bideragarritasun ekonomikoaren barnean egiten den inbertsio bat da.

Helburu hauek eskuratu nahi dira: Nafarroara bisitariak etortzea, Nafarroan gastatzea, gozatzea, gure ondare kultural eta naturala balioestea eta gure erkidegoarentzako aberastasuna sortzea. Eta bidaiariak etor daitezen ezinbestekoa da eskaintza turistiko berriak aurkeztea eta gure baliabideak eta produktu turistikoak hedatzea, betiere, ekimen pribatuaren lankidetzarekin.

2008an turismoa sustatzeko eragin-planaren barnean hurrengo ekintzak gauzatu dira azoka, ekitaldi, publizitate eta argitalpenei dagokienez:

#### 1.- AZOKAK ETA EKITALDIAK:

Nafarroan helmuga turistiko gisa aurkeztea, turistak programaren barnean. Programa honen bidez Nafarroa jomuga turistiko gisa aurkezten da bai egungo bai geroago izan litezkeen nazioko eta nazioarteko merkatuetan. Azken kontsumitzaileari zuzendutako ekintzak dira, Nafarroara bidaiatzeko erabakia errazago har dezan, eta bidaiaria programatu.

Azoka horien zenbatekoa 804.884 eurokoa da, 808.000 euroko kontusail batetik hartzekoa.

2008an zehar, hurrengo ekitaldi hauetan parte hartu du Nafarroak:

– Utrechteko Vakantiebeurs Azoka (Herbehereak)

2008ko urtarrilaren 9tik 13ra.

Nafarroak bere standa izan zuen, eta Donejakue Bidearen erakusmahaiaren ere izan zen, Turespañak jarritako standaren barruan.

Herbehereetako azoka turistiko garrantzitsuenaren azoka honetara 135.233 bisitari bertaratu ziren. Guztira 1.548 parte-hartzaile izan ziren munduko 154 herrialdetatik etorriak.

– Stuggarteko CMT AZOKA (Alemania)

2008ko urtarrilaren 15etik 20ra.

Nafarroak Pirinioen eremuan parte hartu zuen, Turespañak jarritako standaren barruan.

Kanpinean, motorrean eta turismo publiko orokorrean espezializatutako azoka da.

Azoka honetan 200.000 bisitari izan ziren 1.400 erakustoki ikusteko.

– Anberesko VAKANTIESALON AZOKA (Belgika)

2008ko urtarrilaren 28tik otsailaren 3ra.

Bere standarekin parte hartu zuen Nafarroak.

Turismoari buruzko azoka orokor honek 112.000 bisitari hartu zituen.

– TURISMOAREN NAZIOARTEKO AZOKA (FITUR) Madril.

2008ko urtarrilaren 30etik otsailaren 3ra.

Nafarroak bere standa jarri zuen.

Munduko bigarren azoka turistiko garrantzitsuentzat jotzen den azoka honetara nazioko eta

mundu osoko sektore turistikoa bertaratzen da. Ekitaldi honetan egun batzuk bisitari profesionalari ematen zaizkio (harreman publikoak egiteko ekitaldi paregabea) eta beste egun batzuetan publiko orokorrarentzat zabaltzen da.

Arlo profesionalean, Nafarroako turismo-sektore publiko eta pribatuak lan-bilerak egin zituzten hainbat turismo-eragile, bidaiaria-agentzia, instituzio mailako kontaktu eta espezializatutako bitartekari-ekin.

Halaber, Nafarroako standak informazio turistikoaren 15.000 eskaera jaso zituen eta gastronomia-tabernan Nafarroako sukaldaritzako 2.500 mokadu goxo baino gehiago eskaini ziren.

Era berean, azken edizioan errekor berria jarri zen erakusketaren azalera osoari dagokionez; izan ere, 100.000 metro karratu baino gehiagoko hedadura hartu zuen erakusketak, IFEMA azoka-esparruan kokatutako 12 pabilioitan banatuta. 255.817 bisitari bertaratu ziren erakusketara. Horrek % 2,6ko igoera adierazten du 2006ko datuei erreparatuz gero. Haietatik 157.299 sektoreko profesionalak ziren, hots, joan den urtean baino % 3,6 gehiago. Modu berean, esanguratsua izan zen atzerriko bisitarien kopurua, aurreko edizioan baino % 10 gehiago gerturatu baitziren.

Fitur-en, halaber, Nafarroa jomuga turistiko gisa aurkeztu zen; horrez gain, Pablo Sarasate biolin-joleari eskainitako 2008 urte kulturala aurkeztu zen, turismo arloko hainbat berrikuntzarekin batera.

– Bordeleko MAHANA Erakusketa (Frantzia)

2008ko otsailaren 1etik 3ra.

Nafarroaren standa.

Aisialdirako eremua hartzen zuen azoka turistikoak, 20.000 bisitari baino gehiago hartu eta 270 erakustoki barneratu zituena.

Nafarroak lehen aldiz parte hartu zuen azoka horretan, eta Bordeleko zonaldeak gertuko merkatu modura duen indarra agerian geratu zen, hala nola gero eta gehiago ezagutzen direla erkidegoko mugarri turistikoak, bereziki Errege Bardea.

– Essengo REISE CAMPING erakusketa (Alemania)

2008ko otsailaren 6tik 10era.

Nafarroak erakusmahaiaren Pirinioetako eremuaren barnean, Turespañaren standean.

Kanpinean eta turismo aktiboan espezializatutako azoka, Alemanian tradizio handia duena.

– Tolosako MAHANA erakusketa (Frantzia)



2008ko otsailaren 8tik 10era.

Nafarroaren standa.

Frantziako bigarren azoka garrantzitsuentzat hartzen den azoka turistikoa. 50.000 bisitari eta 700 erakustoki izan zituen. Nafarroa lehen aldiz bertaratu zen ekitaldi horretara.

– Bruselako Salon des Vacances erakusketa (Belgika)

2008ko otsailaren 9tik 11ra.

Nafarroak stand propioa izan zuen, eta Donejakue Bidearen erakusmahaian ere izan zen Turespañak ezarritako standaren barruan.

Azokara 99.812 bisitari bertaratu ziren, 700 erakustoki ikustera, Belgikako turismo-erakusketa nagusiaren barruan.

– Municheko Caravan Boot Internationaler azoka (Alemania)

2008ko otsailaren 14tik 18ra.

Nafarroak erakusmahaia zuen Pirinioetako eremuaren barnean, Turespañaren standean.

Kanpinetan espezializatutako azoka honetan Donejakue Bideak eskari handia izaten du.

Ekitaldi honek 17.500 bisitari hartu zituen.

– Torrepachecoko TURISMUR azoka (Murtzia)

2008ko otsailaren 15etik 17ra.

Nafarroak berezko standa jarri zuen.

Murtzian dagoen Nafarroako Etxearen lankidetzatza izan zen.

Azoka honetan 40.000 bisitari izan ziren 180 parte-hartzailearen erakustokietan.

– Iruñeko NAVARTUR azoka (Nafarroa)

2008ko otsailaren 22tik 24ra.

Nafarroak bere standa jarri zuen.

Publiko orokorrari zuzendutako ekitaldia.

Kalkulatzen den asistentzia: 10.000 bisitari.

– Milango BIT AZOKA (Italia)

Otsailaren 21etik 24ra.

Nafarroa bertan izan zen Turespañak jarritako standaren barnean (Pirinioak eta Donejakue Bidea)

Italiako azoka turistikoa nagusia da, publiko orokorrari zuzendua nagusiki. 155.000 bisitari hartu zituen.

– Extremadurako TURISMO ORNITOLOGIKOAREN NAZIOARTEKO AZOKA

2008ko otsailaren 29tik martxoaren 2ra.

Nafarroako hegaztien behaketa- eta ekoturismo- stand espezifikoa.

Turismo ornitologikoari eta hegaztiak behatzeko ekipamendu eta material optikoari buruzko ekitaldia. 105 erakusketari izan ziren.

Espainiako turismo ornitologikoko azoka nagusia bilakatu da.

– Berlingo ITB azoka (Alemania)

2008ko martxoaren 5etik 9ra.

Nafarroak Turespañaren Pirinioetako eremuaren barruan erakusmahaia eta kontaktu profesionalak egiteko lan-mahaia izan zituen.

Munduko azoka turistikoa handiena da; 180.000 bisitari hartu zituen, 180 herrialdeetako 10.000 erakustokitan.

– Parisko SALON MONDIALE DU TOURISME azoka (Frantzia)

Martxoaren 13tik 16ra.

Nafarroak Donejakue Bidearen erakusmahaia izan zuen Turespañak ezarritako standaren barruan.

Frantziako azoka turistikoa nagusi honetara 102.000 bisitari bertaratu ziren 679 erakustoki ikustera.

– Sevillako FERANTUR azoka

2008ko martxoaren 27tik 30era.

Landa-turismoan espezializatutako azoka, publiko orokorrari zuzendua.

Ekitaldi berria izan arren, Nafarroarentzat potentzialtasun handia duen azoka da.

– Nafarroaren aurkezpena Aranjuezko Merkataritza-gunean (Madril).

2008ko martxoaren 3tik 19ra.

Nafarroa ikuspuntu turistikoa eta gastronomikoa batetik aurkezteko baliatu zen ekitaldi hau. Merkataritza Galerian Nafarroaren euskarriak eta stand bat ipini ziren, eta supermerkatuetan Nafarroako produktu gastronomikoak erakutsi ziren. Erakusketaren osagarri, argazki-erakusketa bat ipini zen, eta hainbat folklore taldek jo zuten.

Ekitaldi hau ICANen (Nafarroako Nekazaritza-ko Elikagaien Kalitate Institutuaren) laguntzarekin garatu zen.

– VALENTZIAKO NAZIOARTEKO azoka

2008ko apirilaren 4tik 6ra.

Nafarroak standa jarri zuen.

Valentziako Komunitateko azoka turistiko nagusia, etorkizun handia duena.

Nafarroako standean Nafarroako landa-turismoa aurkeztu zen hedabideen aurrean, eta erkidegoko produktu gastronomikoak dastatu ahal izan ziren.

– NAPOLIKO TURISMO AZOKA

2008ko apirilaren 4tik 6ra.

Nafarroak Donejakue Bidearen erakusmahai izan zuen Turespañak ezarritako standaren barruan.

Italia hegoaldean egiten den azoka turistiko berria. Turismoa aztertzeko lana egin zen.

– Gastronomia-azokak: ALIMENTARIA (Bartzelona) eta GOURMET (Madril)

Turismoai buruzko informazio gune bat ezarri zen Nafarroako standean, Nekazaritzako Elikagaien Kalitate Institutuak antolatuta. (2008ko martxoaren 10etik 14ra eta apirilaren 14tik 17ra)

Erreferentzia gorenak ekitaldi gastronomikoei dagokienez.

– KATALUNIAKO TURISMOAREN NAZIOARTEKO erakusketa

2008ko apirilaren 17tik 20ra.

Bartzelonako azoka turistikoa.

Publiko orokorrari begira egiten den ekitaldi honetan Nafarroako eskaintza turistikoa aurkezten da. Edizio honetan 204.000 bisitari bertaratu ziren.

Halaber, hedabideen aurrean Nafarroako turismoaren nobedadeak aurkeztu ziren, eta Foru Komunitateko produktu gastronomikoak dastatu ahal izan ziren.

– Bilboko EXPOVACACIONES azoka

2008ko maiatzaren 15etik 18ra.

Barakaldoko Bilbao Exhibition Centre guneak azoka honen beste ziklo bat hartu zuen, eta jende asko izan zen. Ekitaldi honek 250.000 bisitari baino gehiago hartu zituen. Egun horietan Bizkai-ko hiriburuan hain ezaguna den Expoconsumo azoka ere egiten denez, jende asko bertaraten da.

– SPAGNA E MILANO aurkezpena Milanen (Italia)

Maiatzaren 17tik 31ra.

Espainiako standean parte hartu zuen Nafarroak, Milango Espainiaren Bulegoak antolatuta.

Ekitaldi hori egiten den lehen urtea izan da.

– Nafarroako CARLOGOren aurkezpena Miarritzen (Frantzia) 2008ko ekainaren 12, 13 eta 14a

*Street Marketing* ekintza: Nafarroari buruzko turismo-informazioa hiru *segway*tan banatzea.

Herritarrei eta gaua zonaldean ematen duten turistek zuzendua.

– Nafarroako pabilioian informazio turistikoari buruzko harrera-gunea, Expo 2008ren barruan.

2008ko ekainaren 15etik irailaren 15era.

Lankidetzan Nafarroako Gobernuako Erakunde Harremanetarako Departamenduarekin.

Foru Komunitatearen Pabilioian ezarritako informazio turistikoari buruzko harrera-gunea, Expo Zaragoza 2008ren barruan.

Expo eszenategi paregabea da, eta ekitaldi hori baliatu da Nafarroa jomuga turistiko gisa ezagutarazteko, eta, halaber, helburu horrekin sortutako programa zehatzak (kultur ekintzak Erriberan, Uraren Erresuman) ezagutarazteko.

Expo-Zaragozako Nafarroako Pabilioiak milioi bat pertsona baino gehiago hartu ditu.

– Nafarroa turistikoaren aurkezpena SANFERMINETAN

Sanferminetan Iruña agertoki bikaina bilakatzeko delako aprobetxatuz *Street Marketing* ekintza gauzatu zen mundu guztiko hainbat txokotatik hiri-herri bertaratzen diren milaka bisitarien erkidegoko mugargi turistiko nagusiak aurkezteko.

Hainbat lekutako argazkiz hornitutako panelak kokatu ziren aparkalekuen sarreretan eta festaren gune nagusietan. Turismo arloan, Nafarroak eskaintzen dituen produktuei dagokienez, leku nagusitzat edo enblematikotzat hartutakoak hautatzen dira.

Honako hauek hautatu ziren: Erriberri, Haitzu-loak (Mendukilo). Iratiko oihana, Orreaga, Errege Bardea, ibai-iturburuak, inauteriak eta festak (Lantz), Lizarra, Tuter, Zangoza. Tradizioak (almadizainak) eta herriak (Baztango ibarra).

Era berean, Europako kulturaren hiriburu modura Iruña-Torunen hautagaitza aldarrikatzen zuten panelak kokatu ziren, Iruñeko planoekin batera.

– Rutland Waters-en (Erresuma Batua) egindako BIRDWATCHING FAIR azoka.

2008ko abuztuaren 15etik 17ra.

Turismo ornitologikoari dagokionez, munduko ekitaldi ospetsuena.

Nafarroak lehen aldiz parte hartu zuen bi urtez itzarote-zerrendan egon ostean.

Azoka aire zabalean egiten da, Egletongo natura-erreserban.

20.000 bisitari ditu, eta 300 erakusketari.

– VOGEL FESTIVAL azoka, Herbehereetan

2008ko abuztuaren 23tik 24ra.

Herbehereetako ornitologia-azoka Oostvaardersplassengo natura-erreserban egin zen, Lelystad-en.

10.000 bisitari baino gehiago izan zituen ekitaldiak; izan ere, Herbehereetan, turismo ekologikoaren esparruan egiten den ekitaldi garrantzitsuena da.

– Deltanatura azoka

Maiatzaren 14tik 16ra

Lehenengo aldiz parte hartu zen ornitologia-eta natura-turismoaren arloko azoka honetan; azoka Ebro ibaiaren deltako natura-parkean egin zen (Tarragona). Bertan 18 erakusketari bildu ziren). (Ez dut lortu bisitarien kopurua).

– 2008ko azken lauhilabetekoa

Tarifako Hegaztien Azoka.

Nafarroako Ostalaritza Erakusketa.

Zaragozako Aratur Azoka.

Londresko World Travel Market Azoka.

Gastu horiek guztiak aurrekontuko Gastuak 2008rako/Ferietako parte-hartzea izeneko kontusailan zordunduta egin dira.

## 2.- PUBLIZITATEA.

Turismoaren publizitatea egiteko kanpainak publizitate-programaren barruan daude, eta komunikabide konbentzionaletan eta ez-konbentzionaletan egiten dira. Nafarroaren aurkezpen orokorrean eta produktu espezifikoean oinarritzen dira: Sanferminak, Donejakue Bidea, Pirinioak edo Hegaztien Behaketa.

Egindako publizitatea korporatiboa da. Nafarroa helmuga turistikoaren hedapena eskaintza eta produktu publikoak eta pribatuak biltzen dituen marka baten bidez egin da.

Programa hori lankidetzan egiten da Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza Departamentua/Komunikazio Zuzendaritza Nagusiarekin.

Zenbatekoa, guztira, 2.889.443 eurokoa da; kontusaila, berriz, 2.916.900 eurokoa.

2008an, kanpaina hauek egin dira:

Departamentuak komunikabide konbentzionaletan eta ez-konbentzionaletan egiten ditu publizitate-kanpainak, eta, horretarako, Nafarroaren aurkezpen orokorrean eta produktu espezifikoean oinarritzen da: Sanferminak, Donejakue Bidea, Pirinioak edo Hegaztien Behaketa.

Egindako publizitatea korporatiboa da. Nafarroa helmuga turistikoaren hedapena eskaintza eta produktu publikoak eta pribatuak biltzen dituen marka baten bidez egin da.

Programa hori lankidetzan egiten da Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza Departamentua/Komunikazio Zuzendaritza Nagusiarekin.

2008an, kanpaina hauek gauzatu dira:

– Nafarroa turistikoaren publizitate-kanpaina komunikabide nazionaletan.

Kanpaina hori nagusiki telebistan eta komunikabide grafikoetan egin zen. Telebistan, nazio osoan, lehen zati intentsibo bat egin zen apirilaren 1etik 14ra TVE, Antena 3 eta Cuatro kateetan. Kostu/inpaktu erlazioagatik hautatu ziren kate horiek. Batez besteko presioa 560 grp-koa izan zen. Ikus-entzule gehieneko gaueko tartean, guztiaren % 40 lortu zen. Emanaldien % 30ean 20 segundoko iragarkia erakutsi zen, eta % 70ean 10 segundokoa.

Apirilaren 22tik 24ra, 10 segundoko iragarkia eman zen target merkatuetako telebista autonomikoetan: Euskal Autonomia Erkidegoan, Madrilen, Katalunian eta Valentziako Komunitatean. Telebista hauek aukeratu ziren: TVE eta Antena 3 lurralde-deskonexioetan, eta ETB, TV3 eta Canal 9.

Komunikabideei dagokienez, egunkari nazionaletako bidaia-gehigarriak eta bidaia-aldizkariak zein aldizkari espezializatuak aukeratu ziren.

Aukeratutako gehigarriak hauek izan ziren: *El Viajero (El País)* eta *El Mundo*, ABC, *Avui* eta *Diario Vasco* egunkarietako bidaia-gehigarriak, hala nola *Geo*, *Viajeros*, *Turismo rural*, *El Mundo de los Pirineos*, *Traveler*, *Aladorno*, *Quercus*, *Editur*, *De Viajes*, *Viajes National Geographic*, *Viajar*, *Rutas del Mundo*, *Paisajes desde el tren*, *Hosteltur*, *Infortursa*, *Conocer Navarra* eta *Tour Magazine* Errioxan, Gipuzkoan eta Nafarroan.

Ikus-entzunezkoak urte osoan argitaratu dira, 2-3ko maiztasunarekin, eta azpimarratzekoa da *El País*en *El Viajero* gehigarrian izandako etengabeko presentzia.

– Nafarroa turistikoaren publizitate-kanpaina nazioarteko komunikabideetan.

Lankidetzan Turespañarekin egindako publizitate-kanpaina. Nagusiki Frantziako eta Italiako merkatuetan egin zen.

Frantzian, hego-mendebaldeko egunkari eta bidaiaria-aldizkari nagusietan prestigiozko bi ekintza egitea erabaki zen; izan ere, eskualde hori target nagusia da Nafarroarentzat. Monografikoak egin ziren *Sud Ouest* egunkarian eta *Pays Basque Magazine* aldizkarian.

Italian, bidaietan espezializatutako aldizkari hauetan iragarkiak jartzeko plan bat egin zen: *I Viaggi del Sole 24 Ore*, *Bell Europe*, *Panorama Travel*, *Tutto Turismo* eta *I Viaggi di Repubblica*.

Espaniak mundu osoan aurrera daraman publizitate-estrategia sortzailearen barruan, Nafarroaren nortasun turistikoa osatuz gauzatu zen ikus-entzunezkoa.

– Nafarroa/Donejakue Bidearen publizitate-kanpaina nazioarteko hedabideetan

Bitartekoen plana, Turespañarekin eta Donejakue Bidea izeneko produktua batera sustatzeko urteroko akordioa sinatzen duten autonomia-erkidegoekin –Galizia, Gaztela eta Leon, Errioxa, Asturias, Kantabria, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa– lankidetzan egina.

Sinatzaile guztien artean finantzatzen da.

Donejakue Biderako kanpaina nagusiki Alemania, Austria, Polonia, Frantzia, Italia, Portugal, Brasil eta Ameriketako Estatu Batuetan bidaietan eta kultura- zein erlijio-turismoan espezializatuta dauden aldizkarietan egin da. Iragarkiak 2-4 aldiz agertu dira, besteak beste, euskarri hauetan: *Le Monde*, *Geo*, *Die Welt*, *Die Zeit* *Magazin* eta *View*.

– Nafarroa/Pirinioen publizitate-kanpaina nazioarteko komunikabideetan.

Kanpaina Turespañarekin eta Pirinioak izeneko produktua batera sustatzeko urteroko akordioa sinatzen duten autonomia-erkidegoekin –Katalunia, Aragoi eta Nafarroa– lankidetzan egin zen.

Sinatzaile guztien artean finantzatzen da.

Pirinioen publizitate-plana natura- eta kirol-turismoa gai nagusitzat duten aldizkarietan egin da Alemanian (*Fit for run* eta *All mountain*), Fran-

tzian (*Pyrénées* aldizkaria eta *Montagnes* aldizkaria) eta Italian (*Meridiani*, *Trekking* eta abar).

– Nafarroaren publizitate-kanpaina barne-turismoarako

2008ko ekainean egin zen. *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias* egunkarietan eta eskualdeetan zabaltzen diren aldizkarietan jarri ziren iragarkiak. Bai eta irrati guztietan eta bertako telebistetan ere (Canal 6, Canal 4 eta Popular TV).

Mezua, nagusiki, lau zonen hedapena izan zen, eta bisita-proposamenak egitea, nafarrek Nafarroan turismo gehiago egin dezaten.

– Sanferminetako publizitate-kanpaina espezifikoa

Plan berezi baten barruan egin zen, krisi-egoera ikusita, eta 2008ko sanferminetan hotelak ez zirela beteko aurreikusita. 2008ko ekainaren 26tik uztailaren 6ra arte iraun zuen. Eta, nagusiki, TVE eta Cuatro kateetan egin zen, bi telebista horiek arduratzen baitira ospakizuna zabaltzeaz.

TVEen *cobranding*-estrategia erabili zen lehen kateko albistegiak amaitzean, atzeranzko kontaketa-programa izeneko multipantailarekin. TVEk Nafarroaren iragarkia zabaltzen zuen, eta festak hasteko zenbat egun falta ziren esaten zuen.

– Sorkuntza berria

Era berean, 2008an bi lehiaketa abiarazi dira, laguntza tekniko kontratatzeko. Lehendabizikoa- ren helburua da turismo-publizitaterako sortze-estrategia berria asmatzea; bigarregoa urte anitzetarakoa da, eta publizitate-kanpainarako bitartekoen plana kontratatzea du helburutzat.

### 3.- ARGITALPEN TURISTIKOAK

Argitalpenetan betetzen ari den kopurua 406.166 eurokoa da, eta kontusaila 436.000 eurokoa.

2008ko operazio-planak honako hauen argitalpena eta berrargitalpena jaso ditu.

– Zatoz Nafarroara buletinak:

Lau argitalpen: negua, udaberria eta uda; 20.000, 18.000 eta 30.000 ale, hurrenez hurren. Eta udazkenekoa; 20.000 ale.

Argitalpen horrek urteko sasoietan egiten diren jarduerak zabaltzen ditu. Nagusiki, hurbileko merkatuei begira egiten da, eta Lau Urtaoen Erresuma produktua zabaltzen du. *Mailing* bidez zabaltzen da Nafarroako turismo-bulegoetan eta Nafarroan, Euskal Autonomia Erkidegoan, Aragoi, Katalunian eta Madrilen egiten diren azoka eta aurkezpenetan.

– 2008ko ekitaldietarako argitalpen espezifikoa

2008an dauden ekitaldi berezien berri emateko egindako foiletoak.

Nafarroa Expo-n: 25.000 ale egin dira. Argitalpen horrek Nafarroa aurkezten du, bai eta adierazten ere zer hurbil egon den Nafarroa ondoko Zaragoza hirian egin den Expo gertakizun handitik. Ferietan, aurkezpenetan eta Expoko Nafarroaren pabiloian turismo-informazioa zabaltzeko prestatutako gunean zabaldu da.

Nafarroa, 08 zure kultura-hitzorduaren 3.000 ale argitaratu dira, eta Sarasate Urtearen 5.000 ale. Ospakizun horien inguruan egindako jarduerak jasotzen dituzte. Banaketa ferietan, aurkezpenetan eta turismo-bulegoetan egin da.

Nafarroako turismo-maparen 5.000 aleren argitalpena ingelesez, upategiak jasota. Merkatu anglosaxoian egin beharreko sustapen-ekintzetan zabaltzeko.

– Nafarroako 2008ko ostatuen gida

50.000 ale paperean eta 56.600 ale CDan argitaratu dira. Era berean, egin diren beste 1.100 CDtan Nafarroako ostatuak eta atlasak jaso dira; argitalpen horrek arrakasta handia izan du kontsumitzaileen artean. Turismo-bulegoetan, ferietan, aurkezpenetan, trade ekintza espezifikoen eta abarretan banatzen da.

Funtsezko argitalpena da bisitarien jatorriko merkatuetan eta helmugan egindako lanetarako.

Eskari handiagatik, eta aurrezteko, separata bat egin da, Iruñerriko ostatuak jasotzen dituena; argitalpena 7.000 alekoa da. Batez ere, Iruñeko turismo-bulegoan zabaltzen da.

– 2008ko Jatetxeen Gida

Ostatuen Gidaren ildo berean, 2008ko Jatetxeen Gida argitaratu da; guztira, 15.000 ale ateratu dira.

Ferietan, aurkezpenetan eta turismo-bulegoetan banatzen da.

– Nafarroako hiriburuen planoak

Planoa, maparekin batera, funtsezko euskarria da, helmugan turismo-informazioa lortzeko. Hortaz, Nafarroako turismo-bulegoetan lan egiteko tresna nagusia da.

2008an, berriz argitaratu dira plano hauek: Orreagako 40.000, Zangozako 40.000, Erriberriko 40.000, Iruñeko 122.000 (haietako 7.000 euskaraz, 30.000 ingelesez eta 10.000 frantsesez), Tuterako 25.000 eta Lizarrako 30.000.

– Nafarroari buruzko DVD interaktiboaren argitalpena

2.000 ale gaztelania, italiara, aleman eta holandesez argitaratu dira, eta 18.000 ale gaztelania, euskara, ingeles eta frantsesez berrargitaratu dira.

Sustapen-ekintza guztietan eta turismo-bulegoetan banatzen da.

Turismo-informazio eta -sustapenerako funtsezko euskarria da.

– Nafarroako zonei buruzko argitalpenak

Liburuxka horietan Nafarroako ibilbideak eta produktuak jasotzen dira, turismoa hedatzeko ezarritako eskualdeen inguruan antolatuta: Erribera, Erdialdea, Iruñerria eta Pirinioak.

Erriberari buruz 25.000 ale berrargitaratu dira, Erdialdeari buruz 30.000, Iruñerriari buruz 40.000 eta Pirinioei buruz 70.000.

Turismo-bulegoetan eta hurbileko merkatuetan egiten diren ekintzetan banatzen dira, eta kontsumoen arabera berrargitaratzen dira.

– Donejakue Bideari buruzko argitalpena

Liburuxkak Donejakue Bidearen Nafarroako zatiari buruzko turismo-informazioa dauka. 60.000 ale berrargitaratu dira gaztelaniaz, 15.000 ale ingelesez, 15.000 frantsesez eta 8.000 alemanez.

Turismo-bulegoetan eta ferietan banatzen da.

– Nafarroa argitalpena – Kontsumitzaileen bertsoia

Oinarrizko foiletoa merkatu guztietako azken kontsumitzailearentzako sustapen-ekintzetan.

2008an 30.000 ale berrargitaratu dira frantsesez, 25.000 ingelesez, 7.000 italiaraz, 7.000 holandesez eta 15.000 euskaraz.

– Produktuen argitalpen espezifikoa

Foileto horiek oinarria dira Nafarroako produktuen sustapen-ekintzetan.

2008an, mapak, entitateak eta hegaztien behaketa-*checklista* dituzten 22.000 foileto berrargitaratu dira gaztelaniaz eta ingelesez, 25.000 gastronomiari buruz, 23.000 Donejakue Bideari buruz (gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, alemanez eta italiaraz), 42.000 Nafarroako senderismoari buruz eta 10.000 bizikletari buruz.

Mahai Onaren Erresuma liburuxkaren berrargitalpena; 25.000 ale.

Gestionatutako liburuxka-eskariaren kopuruari dagokionez, hau da:

- Gestionatutako eskarien kopurua: 727
- Gestionatutako eskari-lerroen kopurua: 5.967. Eskari bakoitzak eskari-lerro bat edo gehiago sor ditzake, eta haietako bakoitza artikulua-mota bat da, eskari horren barruan sartzen dena (hortaz, eskariko batez bestekoa 8,21ekoa da, eta horrek esan nahi du eskari bakoitzean zortzi artikulua desberdin baino gehiago daudela).
- Igorritako unitateen kopurua: 1.542.455 (gestionatutako eskariei gehitu zaizkien artikulua-unitateen kopuru osoa).

– “Nafarroak bere turismo-etorkizuna bultzatzen du” aldizkari profesionala.

Argitalpenak turismo-jarduerari buruzko edukiak eta nobedadeak jasotzen ditu. 10.000 ale zabaltzen dira, eta komunikabideentzat, bitartekari-entzat eta turismo- zein *trade*-sektorearentzat prestatzen da.

Publiko horietara heltzeko ekintzetan banatu da, eta *mailing* zuzena egin da turismo-sektorean.

Iruñean, 2008ko urriaren 7an.

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## Galdera, mendekotasunaren legea aplikatzearen ondoriozko langile-kontratazioei, lanpostuen zerrendari eta aurreikuspenei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du mendekotasunaren legea aplikatzearen ondoriozko langile-kontratazioei, lanpostuen zerrendari eta aurreikuspenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak gal-

dera egin du Mendekotasun Legea aplikatzeko eta 2009ko aurreikuspenak egiteko 2007an egindako kontratuei buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Kontseilariaren erantzuna.

Irailaren 10eko 184/2007 Foru Dekretuaren bidez Nafarroako Mendekotasun Agentzia sortu zen. Erakunde autonomo horrek esparru orokorreko gizarte-zerbitzuen zorroko prestazioak kudeatzeko eta koordinatzeko eskumena du, Nafarroan norberaren autonomia sustatzeko eta mendekotasunaren prebentzioa egiteko. Horrenbestez, plantilla osoak biztanleriaren sektore jakin honen gainean jarduten du, eta horretara bideratutako programak kudeatzen dituzte.

Edozein moduz, jarraian zehazki mendekotasuna baloratzera zuzendutako langileen datuak ematen dira; izan ere, jarduera hori berria da, eta langile-multzo jakin batek jorratzen du.

Lanpostua	Maila	Kopurua
ERREHABILITAZIOKO SENDAGILEA	A	1
PSIKOLOGOA	A	1
OKUPAZIO-TERAPEUTAK	B	9
OLT-AK	B	1
GIZARTE-LANGILEA	B	1
FISIOTERAPEUTA	B	1
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	D	5

Horrez gain, aipatutako pertsonen osatutako taldea gainbegiratzeari hauek arduratzen dira: Balorazio atalburua, sendagilea (alderdi teknikoe-tan) eta Administrazio Koordinazioko Bulegoko burua (administrazio-prozedurei dagokienez).

2009ko aurreikuspenei dagokienez, une honetan, helburu nagusia taldeko profesional gehienen egonkortasuna erdiestea eta, zenbateko balorazio-eskaria dagoen, plantilla aldi baterako areagotu nahi da. Plantilla egonkortzea garrantzitsua da, alde batetik, balorazio-lanak denbora batez prestakuntza intentsiboa eta ondoren prestakuntza etengabea jasotzea eskatzen duelako eta, beste alde batetik, esperientziak lanean segurtasuna, eraginkortasuna eta efizientzia ematen dituelako.

Puntu honetara iritsita, ekainaren 30eko 78/2008 Foru Dekretua hartu behar da kontuan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duena. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea eta gizarte-zerbitzu orokorren zorroa onartzeak aldaketa handia eragin du gizarte-zerbitzuetako sistema publikoaren prestazioetan. Hala, 78/2008 Foru Dekretuaren helburua da, bere zioetan azaldu bezala, aldaketa horri aurre egiteko Familia, Gazteria, Kirola eta Gizarte Gaietako Departamentua beharrezko lanpostuez hornitzea, eta, horretarako, hainbat plaza sortu dira, bai eta arrazoi bera dela-medio aurretik zeuden egiturazko lanpostuak sendotu ere.

Sortutako lanpostu horien artean, lanpostu hauek daude, aipatutako balioespen-taldea osatuko dutenak:

- Psikologo bat
- OLT/EUD lanpostu bat
- Gizarte-langile bat
- 7 okupazio-terapeuta
- 5 administrari laguntzaile

Bestalde, esan behar da une honetan Nafarroan balorazio-eskariak nabarmen areagotzea ez dela aurreikusten; izan ere, gaur egun, "familia-ingurune zainketetarako laguntza ekonomikoen" deialdiarekin 2. mailako eta 1. mailako Mendekotasun Handia eta Mendekotasun Larria duten pertsonak artatzen dira, zeinak jada baloratuta baitaude. Horrenbestez, hasiera batean, egoera horretan baloratutako pertsonen kopurua egonkortu egin beharko litzateke. Espainiako gainerako zonaldeetan, berriz, ez da gauza bera gertatzen; izan ere, 1. mailako Mendekotasun Larria duten pertsonak 2009 eta 2010 urteetan artatuko dira, eta, horren ondorioz, ziur aski, balorazio-eskariak areagotu egingo dira.

Dena dela, herritarren balorazio-eskarien kopuruak erabakiko du gerora zer plantilla beharko den, jakina, bai mendekotasuna baloratzeko taldeari dagokionez, bai Nafarroako Mendekotasun Agentzia osatzen duten gainerako zerbitzuei dagokienez. Horren guztiorren helburua da gizarte-zerbitzuen zorroaren eskakizunak uneoro betetzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 3an.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, kultur intereseko ondare deklaraturiko eta Nafarroako kultur ondareari buruzko Foru Legearen arabera banatutako higiezinari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du kultur intereseko ondare deklaraturiko eta Nafarroako kultur ondareari buruzko Foru Legearen arabera banatutako higiezinari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentu-

ko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du interes kultureko ondasunen zenbait alderdiri buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1. INTERES KULTURALEKO ONDASUN IZENDATUTAKO HIGIEZINEN ZERRENDA, LEGEAREN 15. ARTIKULUAN AURREIKUSITAKO KATEGORIEN ARABERA ANTOLATUA.

**Monumentu historiko-artistikoak**

ABARTZUZA Irantzuko monasterioa  
 ABLITAS Gaztelua  
 ARAMENDIA Gurutzadura  
 ARTZI Artziko Andre Maria.  
 ARELLANO Dorrea  
 ARIZKUN Bergera dorrea - Ursua jauregia  
 ARRAIOZ Jauregizarra dorrea  
 ARTAITZ San Martin eliza - Dorrea  
 ARTAXOA San Saturnino eliza  
 ARTIEDA Jauregia  
 AIANTZ Dorrea  
 AIEGI Iratxeko Andre Maria monasterioa  
 CABANILLAS San Juan de Jerusalem eliza – Belver edo “La Marquesa” izeneko inguruko antzinako dolarea  
 ZARRAKAZTELU La Oliva monasterioa  
 KASEDA San Zoilo ermita  
 ZILEGIETA Dorrea  
 CINTRUÉNIGO Navascués etxea  
 ZIRAUKI Zubi eta galtzada erromatarra  
 ZIZUR TXIKIA Sanjoandarren eliza  
 CORELLA Arte Sakroko Gizakundearen museoa - Arrese museo-etxea  
 CORTES Gaztelua  
 DONAMARIA Jauregia dorrea  
 ETXARREN-GIRGILLAO Harresia  
 EGUESIBAR Etxalazko jaurerria  
 EGIARRETA Itxasperriko Santiago ermita  
 LIZARRA Nafarroako erregeen jauregia edo Granada de Egako dukeen jauregia – Hilobi Santuaren eliza – San Pedro de la Rúa eliza – San Miguel eliza – Santa Maria Jus del Castillo eliza  
 ETAIO Leartzako San Andres eliza  
 EUSA Eliza parrokiala  
 FITERO Andre Mariaren monasterioa  
 GALIPENTZU San Salvador eliza

GARINOAIN Katalaingo Santo Kristoren ermita  
 GAZOLATZ Andre Mariaren eliza  
 GENDULAIN Jauregia  
 ARIAKO GARAIK: Apat – Etxeberri – Jamar – Jauri – ARIBE: Domench – EKAI: Ospitalea – ERDOTZAIN  
 GARAIOA: Maisterra – GARRALDA: Masamiguel – ITZAL: Ballaz etxea –  
 LUSARRETA – ORBAITZETA: Etxegaray - Estanquero – Larrañeta - ORBARA: Jabat – SANTA FE  
 HIRIBERRI: Jauki – Portal – Reca – Elizondo – ZABALTZA: Estoki  
 UHARTE ARAKIL San Migel in Excelsis santutegia – Zamartzeko Andre Maria monasterioa  
 IRURITA Dorrea  
 XABIER Gaztelua  
 LAKAR Egiarteko Andre Maria  
 LARUNBE San Bizente eliza  
 LEOTZ Iratxetako garaia  
 LESAKA Zabaleta dorretxea – Minyurenea dorrea  
 LETE Iharteko monasterioa  
 LODOSA Akueduktuaren aurriak – Sartagudako dorrea edo Radako dorrea  
 LOS ARCOS Andre Mariaren eliza  
 IRUNBERRI Jasokundearen eliza  
 MARTZILLA Gaztelua  
 MIRANDA ARGA Dorrea  
 MONTEAGUDO Gaztelua  
 MURUZABAL Eunateko Andre Mariaren eliza  
 NABASKOZE Santa Maria del Campo ermita  
 NOAIN – TAXOARE – SUBITZA Noaingo akueduktua  
 OTSAGABIA Muskildako Andre Mariaren ermita  
 OLKOTZ Dorrea  
 ERRIBERRI Gaztelua – Andre Mariaren eliza - San Pedro eliza  
 OLETA Jasokundearen eliza  
 OLORITZ Etxanoko San Pedro ermita  
 OLTZA Arazuriko gaztelua  
 ORBAITZETA Arma-lantegia  
 ORISOAIN Orisoaingo eliza eta kriptak  
 OTEITZA Baigorriko jauregia  
 IRUÑA Chinchilla Generala 7, Comptos Ganberaren eraikina – Nafarroako Museoa – Iruñeko ziu-dadela – harresiak – San Antónko bastioia – Printzearen gotorlekua – San Pedro zubia – Miluze zubia – Magdalena zubia – Katedrala – San Saturnino eliza – Errege Jauregia – Kondestablearen



Jauregia – Agustindar Errekoletoen komentua –  
Alfontso XII.aren gotorlekua – San Nikolas eliza  
GARES

Arga ibaia zeharkatzen duen zubia – Gurutzearen  
eliza – Santiago eliza – Ureztatze etxea edo “Los  
Cubiertos”

SAN MARTIN UNX San Martin de Tours eliza

ZANGOZA Andre Mariaren eliza – Vadoluengoko  
San Adrian eliza – Santiago Apostoluaren eliza –  
San Salvatore eliza – Vianako Printzearen Jaure-  
gia edo Borrokariaren dorreak

TIEBAS Gaztelua

TORRALBA DEL RÍO Torralbako harresiak

TORRES DEL RÍO Hilobi Santuaren eliza

TUTERA Andre Mariaren eliza – Andre Maria  
Magdalenaren eliza – Uharteko markesaren jaure-  
gia – San Adriánko markesaren jauregia – Santa  
Barbara gaztelua eta mendia – Monreal dorrea

TULEBRAS Karitateko Andre Mariaren monasterio  
zistertarra

UXUE Andre Mariaren santutegi-gotorlekua

URITZ Dorrea

URRAULGOITI Santa Fe basilika

VALTIERRA La Torraza

VIANA Andre Mariaren eliza

BIGURIA Biguriako jauregia

VILLAMAYOR DE MONJARDÍN Gaztelua

IHARNOTZ Dorrea

ESA Leireko San Salvatore monasterioa

ZIZUR NAGUSIA San Andres eliza

ZUÑIGA Harresiak

### **Multzo historikoa**

ARTAXOA Harresien multzo historikoa

AURITZ/BURGUETE Multzo historikoa

DONEJAKUE BIDEA Multzo historiko-artistikoa

LIZARRA San Pedro de la Rúa auzoa – Hirigune  
historikoa

ERRIBERRI Hirigune historikoa

IRUÑA Alde Zaharra

PEÑA (XABIER) Peñako multzoa

GARES Hirigune historikoa

ORREAGA/RONCESVALLES Orreagako Errege  
Kolegio Eliza

ZANGOZA Multzo historikoa

LERINGO SANTESTEBAN Alde Zaharra

TUTERA Alde Zaharra

VIANA Hirigune historikoa

### **Leku historikoa**

LIZARRA Gazteluen ingurua deiturikoa

**Inguru pintoreskoa** (gaur egungo kategoriekin  
bat ez datozenak)

ORREAGA/RONCESVALLES Orreaga-Luzaide  
sektorea

### **Eremu arkeologikoak**

- Calahorrako akueduktu erromatarra.
- Carako hiri erromatarra.
- Andelosko hiri erromatarra.
- Alkerdi-Berroberrria haitzuloak.
- Santa Barbara gaztelua eta mendia.
- La Torrecilla mausoleoa.
- Artaxonako trikuharriak (Enerizko Ataka eta  
Farangorteako Meategia)
- Alto de la Cruz Burdin Aroko herrixka.
- San Esteban villa erromatarra

2. INTERES KULTURALEKO ONDASUNTZAT  
DEKLARATUTAKO HIGIEZINEN ZERRENDA,  
LEGEAREN 15. ARTIKULUAN AURREIKUSITAKO  
KATEGORIEN ARABERA ANTOLATUA.

Monumentu historiko-artistikoak

OIEREGI – Erreparatzeako jauregia eta zubia

3. LEGEGINTZALDI HONETAN INTERES  
KULTURALEKO ONDASUNTZAT IZENDA DAI-  
TEZKEEN ONDASUN HIGIEZINEN ZERRENDA,  
LEGEAREN 15. ARTIKULUAN AURREIKUSITAKO  
KATEGORIEN ARABERA ANTOLATUA.

Ondasun higiezinaren eremuan asko aurreratu  
da, eta esan daiteke Nafarroako monumentu  
nagusiak interes kulturalako ondasun gisa katalo-  
gatuta daudela. Baina Nafarroan badira oraindik  
interes kulturalako ondasun deklaratu daitezkeen  
ondasun higiezin asko, eta Departamentuaren  
nahia da deklarazio gehiago egitea da. Alde horre-  
tatik, legealdi honetan batez ere leinu-etxeak jorra-  
tu nahi ditugu, eta, zehazki, Baztango jauregiak.  
Arkeologiaren arloan ere zenbait aukera zehaztuta  
daude jada, eta laster abiaraziko dira.

### **Eremu arkeologikoak.**

- Santa Crizeko erromatar hiria (Eslaba).
- Los Cascajosko Neolitoko herrixka (Los  
Arcos).
- Abauntz kobazuloa (Arraitz-Orkin, Ultzama).

**Bide historikoak.**

- Erromatar galtzada, Antoninoren Ibilbideko 32. bidearen Nafarroako zatian (Cortes, Ablitas, Cascante eta Corella herriak).

- Ibilbide megalitikoak.

4.- UNE HONETARA ARTE INTERES KULTURALEKO ONDASUN IZENDATUTAKO HIGIGARRIEN ZERRENDA.

**Erretaulak**

- Andosillako San Julian eta Santa Basilisa parrokiako hiru erretaula.

- Añorbeko Jasokundearen parrokiako erretaula nagusia.

- Aoizko San Migel parrokiako erretaula nagusia.

- Aralarko San Migeleko erretaula.

- Arreko San Roman parrokiako erretaula nagusia.

- Artaxonako San Saturnino parrokiako erretaula nagusia.

- Azpilkuetako San Andres parrokiako bost erretaula.

- Barillasko San Migel parrokiako erretaula nagusia.

- Belaskoaingo Jasokundearen parrokiako erretaula nagusia.

- Kasedako Jasokundearen parrokiako erretaula nagusia.

- Cintruénigoko San Joan Bataiatzailearen parrokiako erretaula nagusia.

- Zizur Nagusiko San Andres parrokiako erretaula nagusia.

- Corellako San Migel parrokiako erretaula nagusia.

- Elkanoko Garbikundearen parrokiako erretaula nagusia.

- Egiarretako San Antonio Abadearen parrokiako erretaula nagusia.

- Espartzako San Esteban parrokiako erretaula nagusia.

- Ezkirozko San Adrian parrokiako erretaula nagusia.

- Lizarrako San Migel Goiaingeruaren parrokiako Santa Elena erretaula.

- Fiteroko Andre Mariaren parrokiako erretaula nagusia.

- Fustiñanako Jasokundearen parrokiako erretaula nagusia.

- Genevillako San Esteban parrokiako erretaula nagusia.

- Uharte-Iruñako San Joan Bataiatzailearen parrokiako erretaula nagusia.

- Uharte Arakilgo San Joan Bataiatzailearen parrokiako erretaula nagusia.

- Itsasoko San Pedro parrokiako erretaula nagusia.

- Iruritako San Salvador parrokiako hiru erretaula.

- Izabako San Ziprianoren parrokiako erretaula nagusia.

- Lapoblacióngo Jasokundearen parrokiako erretaula nagusia.

- Lekarozko San Bartolome parrokiako hiru erretaula.

- Leringo Andre Mariaren parrokiako erretaula.

- Lesakako San Martin parrokiako bost erretaula.

- Los Arcoseko Andre Mariaren parrokiako Bisitazioaren erretaula.

- Irunberriko Jasokundearen parrokiako erretaula nagusia.

- Mendabiako San Joan Bataiatzailearen parrokiako erretaula nagusia.

- Mendigorriako San Pedro parrokiako erretaula nagusia.

- Miranda Argako Jasokundearen parrokiako erretaula nagusia.

- Nagoreko San Julian eta Santa Basilisa parrokiako erretaula multzoa.

- Otsagabiako San Joan parrokiako erretaula nagusia.

- Erriberriko Andre Mariaren parrokiako erretaula nagusia.

- Ororbiako San Julian parrokiako erretaula nagusia.

- Iruñeko Katedraleko Caparrosoko Kristoaren edo Profeten erretaula.

- Iruñeko Katedraleko Santo Tomasen edo Caparrosoren erretaula.

- Iruñeko Santo Domingo komentuko eliza nagusiko erretaula.

- Iruñeko San Migel parrokiako erretaula nagusia.

- Iruñeko Agustindar Errekoletoen komentuko elizako hiru erretaulako multzoa.

- Tafallako Andre Mariaren parrokiako erretaula nagusia.

- Tafallako Frantziskotar Kontzepzionisten komentuko elizako erretaula nagusia.

- Tuterako Katedraleko erretaula nagusia.

- Tuterako Katedraleko Itxaropenaren Andre Mariaren erretaula.

- Tuterako Katedraleko Alejandriako Santa Katalinaren erretaula.

- Tuterako Santa María Magdalena parrokiako erretaula nagusia.

- Tuterako Domingotarren komentuko elizako erre-  
taula nagusia.
- Untzuko Jasokundearen parrokiako erretaula  
nagusia.
- Urrozko Jasokundearen parrokiako erretaula  
nagusia.
- Valtierrako Santa Maria parrokiako erretaula  
nagusia.
- Vianako Andre Mariaren parrokiako erretaula  
nagusia.

#### **Organoak eta organo-kutxak**

- Amaiurko Jasokundeko parrokiako organoa.
- Cascanteko Erromeroaren Basilikako organo  
positibo.
- Kasedako Jasokundeko parrokiako organoaren  
kutxa.
- Fiteroko Santa Maria la Real parrokiako organoa.
- Uharte Arakilgo San Joan parrokiako organoaren  
kutxa.
- Iزابako San Ziprianoren parrokiako organoa.
- Leringo Jasokundearen parrokiako organoa.
- Lesakako San Martin parrokiako organoa.
- Los Arcoseko Andre Mariaren parrokiako orga-  
noa.
- Miranda Argako Jasokundearen parrokiako orga-  
noa.
- Erriberriko Andre Mariaren parrokiako organoa.
- Iruñeko Santo Domingo elizako organoa.
- Iruñeko San Lorenzoren parrokiako organoa.
- Iruñeko San Nikolas parrokiako organoaren  
kutxa.
- Zangozako San Salvador parrokiako organoa.
- Sesmako Andre Mariaren parrokiako organoa.
- Tafallako Andre Mariaren parrokiako organoa.
- Tuterako Katedraleko organoa.
- Uztarrozko Santa Engraziaren parrokiako orga-  
noa.
- Berako San Esteban parrokiako organoa.
- Vianako Andre Mariaren parrokiako organoa.

#### **Beste batzuk**

- Julian Gaiarrerren mausoleoa. Erronkari.
- San Adriango Markesaren karroza barrokoa.  
Tutera.
- Jacques Francarten 14 margolaneko multzoa,  
Ama Birjinaren bizitzaren eszenak dituztenak.  
Iruña. Nafarroako Museoa.

- Iruñeko Katedraleko bi kapitel erromaniko eta  
Tafallako Errege Jauregiko lau giltzarri gotiko.  
Iruña. Nafarroako Museoa.
- Karlomagnoren Xakea deitutako erlikia-ontzia.  
Orreagako museoa, Andre Mariaren Errege Kole-  
gio Eliza.
- Orreagako Andre Mariaren tailua. Orreagako  
Kolegio Eliza.
- Zangozako Andre Mariaren parrokiako kustodia.
- Fiteroko Andre Mariaren parrokiako kutxatila,  
pixidea eta nabeta.
- Alonso Canoren Kristoa, Lekarozko kaputxinoena  
eta Iruñeko Kaputxinoen elizan aurkitua.
- Corellako Erostarren triptiko flandestarra.
- Iruñeko Nafarroako Jauregiko sei tapiz flandes-  
tar.
- Iruñeko Gendulain Jauregiko bi galdi.

#### **5.- INTERES KULTURALEKO ONDASUN IZENDATZEKO BIDEAN DIREN HIGIGARRIEN ZERRENDA.**

1. ABLITASKO Santa Maria Magdalenaren parroki-  
ako kopoia.
2. CORELLAKO Errosarioko Andre Mariaren  
parrokiako zerraldoak.
3. TUTERAKO Santa María Magdalena parrokiako  
kaliza-kopoia.
4. TULEBRASKO Karitateko Andre Mariaren  
Monasterioko eukaristiako kutxatila eta lanparak.
5. TULEBRASKO Karitateko Andre Mariaren  
Monasterioko bi lanpara.
6. VALTIERRAKO Andre Mariaren parrokiako eki-  
saindua.
7. AMESKOAKO SAN MARTINGO San Martin  
parrokiako prozesio-gurutzea.
8. ALZUELOKO San Jorge monasterioko San Jor-  
geren kutxatila/erlikia-ontzia.
9. ZIRAUKIKO San Roman parrokiako prozesio-  
gurutzea.
10. LIZARRAKO San Migel parrokiako prozesio-  
gurutzea.
11. LIZARRAKO San Migel parrokiako Haurtxo  
Errugabeen erlikia-ontzia.
12. AMUNARRIZKO Iguripenaren parrokiako pro-  
zesio-gurutzea.
13. SORLADAKO San Gregorio Ostiakoaren Basi-  
likako San Gregorioren kutxatila/erlikia-ontzia.
14. VILLAMAYOR DE MONJARDÍNEKO parrokia-  
ko prozesio-gurutzea.
15. IBIRIKUKO (EGUESIBAR) San Joan Bataia-  
tzailaren parrokiako prozesio-gurutzea.

16. ERREAKO (ESTERIBAR) Garbikundearen parrokiako prozesio-gurutzea.
17. SARASIBARKO (ESTERIBAR) Santa Nunilo eta Alodiaren parrokiako prozesio-gurutzea.
18. IZABAKO San Ziprianoren parrokiako prozesio-gurutzea.
19. ABAURREGAINAKO San Pedroren parrokiako prozesio-gurutzea.
20. INDURAINGO (IZAGAONDOA) Garbikundearen parrokiako intsentsu-ontzia.
21. ZUNZARRENGO (LIZOAINIBAR) San Roman parrokiako prozesio-gurutzea.
22. ERRONKARIKO San Esteban parrokiako prozesio-gurutzea.
23. ORREAGAKO Andre Mariaren Kolegio elizako kutxatila.
24. ORREAGAKO Andre Mariaren Kolegio Elizako prozesio-gurutzea.
25. ORREAGAKO Andre Mariaren Kolegio Elizako ebanjelio-liburua.
26. EPAROKO (URRAULGOITI) San Andres parrokiako prozesio-gurutzea.
27. URZAINKIKO San Martinen erlikia.
28. EGIARRETAKO (ARAKIL) Andre Mariaren parrokiako prozesio-gurutzea.
29. ITSASOKO (BASABURUA) San Pedro parrokiako prozesio-gurutzea.
30. ANIZKO (BAZTAN) Jasokundearen parrokiako prozesio-gurutzea.
31. ELIZONDOKO (BAZTAN) Santiagoren parrokiako prozesio-gurutzea.
32. GAZOLAZKO (ZIZUR) Garbikundeko Andre Mariaren parrokiako prozesio-gurutzea.
33. UNDIANOKO San Martin de Tours parrokiako intsentsu-ontzia.
34. SORAURENGO San Andres parrokiako prozesio-gurutzea.
35. UHARTE ARAKILGO San Migel santutegiko Aralarko Aingerua deitutako erlikia-ontzia.
36. MUSKIZKO (IMOTZ) San Martin parrokiako prozesio-gurutzea.
37. ATONDOKO (IZA) San Martin parrokiako prozesio-gurutzea.
38. LETEKO (IZA) San Millan parrokiako prozesio-gurutzea.
39. MARKALAINGO (TXULAPAIN) San Migel parrokiako prozesio-gurutzea.
40. ARRUIZKO (LARRAUN) San Kristobal parrokiako prozesio-gurutzea.
41. LEITZAKO San Migel parrokiako prozesio-gurutzea.
42. IZKUEKO (OLTZA) Santa Eulaliaren parrokiako prozesio-gurutzea.
43. TIRAPUKO Sortzez Garbiaren parrokiako prozesio-gurutzea.
44. ALKOZKO San Esteban parrokiako prozesio-gurutzea.
45. BERAÑO San Esteban parrokiako prozesio-gurutzea.
46. UBANIÑO (ZALBATZA) San Martin parrokiako prozesio-gurutzea.
47. IRUÑEKO Santa Maria la Real parrokiako organoa.
48. IRUÑEKO Katedraleko Hilobi Santuaren erlikia.
49. IRUÑEKO Katedraleko Lignum Crucis-aren erlikia-ontzia.
50. IRUÑEKO Katedraleko Santa Ursularen erlikia-ontzia.
51. IRUÑEKO katedraleko ebanjelio-liburua.
52. IRUÑEKO Katedraleko prozesio-kustodia.
53. IRUÑEKO Katedraleko eukaristiako tenpletea.
54. IRUÑEKO San Cernin parrokiako eguzkiaren kustodia.
55. IRUÑEKO San Cernin parrokiako San Saturninoren erlikia-ontzia.
56. IRUÑEKO San Cernin parrokiako prozesio-gurutzea.
57. IRUÑEKO San Cernin parrokiako pixidea.
58. IRUÑEKO San Nikolasen parrokiako San Markosen erlikia-ontzia.
59. IRUÑEKO San Agustin parrokiako Santa Barbararen erlikia-ontzia.
60. IRUÑEKO San Joan Bataiatzailearen parrokiako prozesio-gurutzea.
61. IRUÑEKO San Lorenzoren parrokiako mitra, artzain-makila eta infulak.
62. IRUÑEKO San Lorenzoren parrokiako San Ferminen bi frontal.
63. GOIZUETAKO Andre Mariaren parrokiako ekisaindua.
64. ARRAITZ-ORKINEKO (ULTZAMA) Jasokundearen parrokiako ekisaindua.
65. LESAKAKO San Martin parrokiako ekisaindua.
66. LESAKAKO San Martin parrokiako prozesio-gurutzea.
67. ARRIBEKO (ARAITZ) San Migel parrokiako ekisaindua.
68. ERRIBERRIKO Frantziskotarren komentuko ekisaindua. Barrokoa.
69. PERALTAKO San Joan Ebanjelariaren parrokiako eukaristiako kutxatila.

70. OLAIZKO (OLAIBAR) San Migel parrokiako prozesio-gurutzea.

71. DEIKAZTELUKO San Emeterio eta Zeledonio-ren parrokiako Iratxeko Ama Birjina.

72. UXUEKO Ama Birjina.

73. ZANGOZAKO Andre Mariaren parrokiako Rocamadorreko Ama Birjina.

74. LIZARRAKO Puyko Ama Birjina.

#### 6.- LEGEGINTZALDI HONETAN INTERES KULTURALEKO ONDASUN IZENDA DAITEZKE-EN HIGIGARRIEN ZERRENDA.

Amaitzear da Iruñeko bilduma partikular batean aurkitutako *Anales del Reino de Navarra-ren 1766ko edizioko ilustrazioen corpusa* izendatzeko espedientea. 2011ra bitartean, ospe handiko higigarriak interes kultureko ondasun izendatzeko espedienteak tramitatzen jarraituko da. Lan-ildo nagusia dekorazio-arteak dira. Ondasun horiek izendatzeko, orientaziozko zerrenda batzuk egiten dira, eskuarki Nafarroako Kultura Kontseiluaren bitartez. Une honetan, urregintzako 74 piezak jada abiarazita, lehendik zeuden zerrendak amaitu egin dira; eta, beraz, aurreikusita dago orientazio-zerrenda gehiago egiteko eskatzea.

#### 7.- UNE HONETARA ARTE INTERES KULTURALEKO ONDASUN IZENDATUTAKO ONDASUN IMMATERIALEN ZERRENDA.

Une honetara arte ez da deklaratu ondasun immaterialik.

#### 8.- INTERES KULTURALEKO ONDASUN IZENDATZEKO BIDEAN DIREN ONDASUN IMMATERIALEN ZERRENDA.

Laster hasiko da ondasun immaterial hauen izendatze-prozesua: Etxalarko usategiak – Lanzko inauteriak – Iturengo eta Zubietako inauteriak

#### 9.- LEGEGINTZALDI HONETAN INTERES KULTURALEKO ONDASUN IZENDA DAITEZKE-EN ONDASUN IMMATERIALEN ZERRENDA.

Badira Nafarroan interes kultureko ondasun izenda daitezkeen ondasun immaterialak, eta, gai honi dagokionez ondasun higigarri eta higiezinaren aldean desoreka handia dagoela kontuan hartuta, Departamentuaren nahia ildo horretan lan egitea da. Edozein moduz, ondasun horien kategoria immateriala dela eta, korapilatsua da ondasun horien izaera zehaztea; izan ere, askotariko eremuak barne har daitezke bertan, hala nola folklorea, gastronomia, ohiturak, mitoak, elezaharrak... Nolanahi ere, nabarmendu behar da deklarazio horiek egiten lehenengoz legegintzaldi honetan hasiko direla; horrenbestez, bide luzea dago aurretik, datozen urteetan egiten dena.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko urriaren 8an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, prestatu diren, prestatzen ari diren eta etorkizunean egingen diren plan zuzendariei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du prestatu diren, prestatzen ari diren eta etorkizunean egingen diren plan zuzendariei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du egindako edo egiteko bidean diren plan zuzendariei buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1.- Iragan hurbilenean prestatutako plan zuzendarien zerrenda, eta horien eraginpeko eraikinak edo enklabeak.

- Arradako esparru harresitua museo bihurtzeko proiektua.

- Andelosko hiri erromatarreko plan zuzendaria.

- Arellanoko villa erromatarreko plan zuzendaria.

- Tuterako katedraleko plan zuzendaria.

- Iruñeko katedraleko plan zuzendariaren aurretiazko eskema.

2º Uneotan abian diren plan zuzendarien zerrenda, eta horien eraginpeko eraikinak eta enklabeak.

- La Oliva monasterioko plan zuzendaria (idatzita eta azken berrikuspenetan).

- Santa Crizko (Eslaba) aztarnategi erromatarreko plan zuzendaria.

3º Idatzitako edo uneotan abian diren jardueran zerrenda, eta horien eraginpeko eraikinak eta enklabeak

Lan-plana. Iratxeko monasterioa. (Paradore Nazionalaren arauen zain).

Lan-plana. Zangozako Santa Maria elizaren fatxada. (Egiten ari da).

Lan-plana. Iruñeko jauregiko harresia eta lorategia. (Egiten ari da).

Lan-plana. San Pedro de la Rúa. (Esleitzeko fasean).

Lan-plana. Uxueko Santa Maria. (Egiten ari da).

Lan-plana. Fiteroko monasterioa. (Egiten ari da)

Lan-plana. Orreagako aterpetxea. (Egiten ari da)

4º Etorkezun hurbilerako aurreikusitako plan zuzendarien zerrenda.

Zerrendaren konplexutasuna ikusita, Iruñeko katedralaren plan zuzendaria egiteko aukera proposatu da, aurretiaz egindako eskeman azaldutakoari jarraituta, lan-premia eta -aukerak garatzeko. Katedralaren barnealdea zaharberrituta dago jada eta, uneotan, fatxada, klaustroa, pinakuluak eta argiteria berritzea aurreikusita dago, baina zaharberritu beharreko zenbait eremu zehazteke daude oraindik; izan ere, horiek planean jaso daitezke. Uneotan, etorkizun hurbilean hasiko diren lanei dagokionez, eginda dago altxaketa planimetrikoa, bai eta klaustroko eta fatxadako harriaren azterketa petrologikoak eta hondatze-mailaren gaineko azterketa.

5º Etorkezun hurbilerako aurreikusitako jardueran-planen zerrenda.

Departamentuak monumentu hauen jardueran planak eta haiei dagozkien azterketak egiteko beharra aurreikusten du: Tuterako katedraleko klaustroa eta portada, Artaizko San Martin elizako portada, Galipentzuko Salvatore eliza, San Pedro de la Rúa elizaren barnealdea, Erriberriko San Pedro elizako dorrea, Zurukuaingo Motalban baseliza.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko urriaren 8an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, 2007an eta 2008an gizarte zerbitzuen arloko jardueretan alta emandako afiliatuen hazkundeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du 2007an eta 2008an gizarte zerbitzuen arloko jardueretan alta emandako afiliatuen hazkundeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du gizarte-zerbitzuetako jardueretan alta emanda dauden afiliatuei buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Gai horri dagokionez, esan behar dugu Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak ez duela Gizarte Segurantzako afiliazioari buruzko datu orokorrik, eta, ezberrik gabe, informazio hori erakunde horri dagokio.

Alabaina, badu indarrean diren zaintzaile ez-profesionalentzako izenpetutako hitzarmen berezietan buruzko informazioa. Gaur egun, Gizarte Segurantzak berak helarazitako datuen arabera, guztira 325 dira.

Aukera horren bidez, hitzarmen horien sinatzaileak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorren aplikazio-eremuan sartzen dira, gai-egoerarekin parekatutako egoeran. Aplikazio-eremu horretan sartzeko baldintzak abenduaren 14ko autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legearen 18. artikuluan aurreikusten da. Lege hori maiatzaren 11ko 615/2007 Errege Dekretuak arautu eta garatzen du, eta araudi horretako eskakizunak betez, Nafarroan mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko eta haien familia-zaintzaileei babesa emateko dirulaguntzak jasotzen dituzten zaintzaile ez-profesionalei dagokie. 2008rako dirulaguntzen deialdia Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren urtarrilaren 28ko 22/2008 Foru Aginduaren bidez onartu zen.

Iruñean, 2008ko urriaren 3an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, Irunberriko udal plana aldatzeko espedienteari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Irunberriko udal plana aldatzeko espedienteari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 26ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Irunberriko udal-planaren aldaketa-espedientea behin betiko onartzen duen 100/2007 Foru Aginduari buruz. Hona Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Onespen horrek izan al zuen beharrezkoa duen ingurumen-ebaluazio estrategikoa?

Espediente hori Irunberriko udal-planaren aldaketa bat da, eta haren bidez, AR-6ko sektorizatu

gabeko lurzoru urbanizagarriaren zati bat lurzoru ez-urbanizagarri gisa sailkatzen da, "jarduera berezietara bideratua" azpikategorian.

Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko Foru Legearen 31.1 artikuluan ingurumen-ebaluazio estrategikoaren aplikazio-eremua ezartzen da, eta bertatik ezin da inolaz ere ondorioztatu aldaketa puntual baten bidez lurzoru urbanizagarria ez-urbanizagarri bihurtzeak ebaluazio hori eskatzen duenik. Gainera, Lurralde Antolamendurako Zerbitzuak, Ingurumen Ebaluazioko Atalarekin batera, iritzi zion proposatutako aldaketak ez zuela ondorio nabarmenik eragiten ingurumenean.

Nolanahi ere, gai hori dela-eta espedienteari gora jotzeko errekurtsoa jarri zaionez, azken erabakia dagokionean hartuko du Nafarroako Gobernuak, beharrezko txosten juridikoak eman eta gero.

2. Neurtu al zen ur-premia?

Izapidetutako txostenean ez dago horri buruzko informaziorik. Horrek ez du esan nahi, ordea, Uda-

lak ez duenik aintzat hartu udal eskumeneko zerbitzuei eragiten dien gai hori. Departamentuak ez zuen horren gainean eskakizunik egin, lurzoruaren klasifikazioa "urbanizagarri" izatetik "ez-urbanizagarri" izatera aldatu besterik ez baitzen egin behar, eta horrek, bistan denez, ez du ur-eskaera handiagoa ekartzen berarekin.

3. Jarduera bereziaren helburua une honetan dauden proiektuei doitzen al zaie?

Departamentuaren ustez, bai. Jarduera berezietarako lurzoru ez-urbanizagarrien azpikategorian 84/1990 Foru Dekretuak ezarritako industria-jarduerak baimentzen dira, eta dekretu horren bidez, Nafarroan industrialde eta industria-jardueren ezarpena arautzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

## **Galdera, krisialdi ekonomikoa dela-eta lanpostu hutsak izozteak langile publikoen plantillan izanen duen eraginari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du krisialdi ekonomikoa dela-eta lanpostu hutsak izozteak langile publikoen plantillan izanen duen eraginari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Ion Erro Armendariz jaunak galdera batzuk egin ditu langile publikoen kopuruaren izozketari buruz (PES-213). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuaren 2008ko uztailaren 15eko Erabakiaren xedea da jarraibide batzuk ematea, gastuen jarraipena eta kontrola egiteko

langileen alorrean. Erabakiaren helburua da aurrekontuen 1. ataleko gastuei eustea, gehiago igo ez daitezen, eta, azken batean, eskura dauden giza baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea. Beraz, ez da lanordurik "galduko".

Zehazki, neurri horren bidez zera ezartzen da: hutsik dauden lanpostuak modu egonkorrean betetzeko, plaza aldi baterako betetzea eskatzeko dauden premiak zehatz-mehatz azaldu behar dira eta justifikatu behar da dena delako Departamentuko edota erakunde autonomoko gainerako langileek ezin dituztela eginkizun horiek bete.

Halaber, giza baliabideak eta aurrekontuak arrazionalizatzearen, langileak ordezkatzeko eginen diren kontratazioak murriztu eginen dira. Horretarako, gutxieneko epea hiru hilabetekoa izanen da (behar bezala justifikatutako kasuak salbu, esate baterako publikoari arreta emateko pertsona bakarra dagoenean edota irakaskuntza-zerbitzuak zein laguntza-zerbitzuak emateko lanpostuak direnean).



Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernuaren 2008ko uztailaren 15eko Erabakian zehazturiko neurriek ez dute murrizketarik eraginen hiritarrei ematen zaien arretan edota zerbitzu publikoen kalitatean. Hain zuzen ere, erabaki horretan bereziki aipatzen dira Hezkuntza Departamentua eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua, eta biei eskatzen zaie beharrezko antolaketa-neurriak hartzea, neurri horien aplikazioak ez dezan murrizketarik eragin orain ematen diren zerbitzuen mailan.

Gainera, Gobernuaren agindu berak xedatuta, Departamentu eta erakunde autonomo bakoitza-

ren egungo kontratazio estrukturala aztertuko da. Hartara, batetik, dagozkien zerbitzuak emateko beharrezkoak diren lanpostuak finkatuko dira, eta, bestetik, bete beharrekoak ez diren plaza hutsak amortizatuko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:  
Javier Caballero Martínez

## **Galdera, Gobernuko kontseilarien eta foru administrazioko goi karguen soldatak izozteak diru publikoari ekarriko dion aurrezki errealari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Gobernuko kontseilarien eta foru administrazioko goi karguen soldatak izozteak diru publikoari ekarriko dion aurrezki errealari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Ion Erro Armendariz jaunak galdera batzuk egin ditu goi-karguen ordainsariak izozteaz, eta horren ondorioz aurreztuko den diruari buruz (PES-214). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak azaldu zuen, goi-karguen ordainsariak 2009an izozteko erabakia ezagutarazi zuenean, neurri horren xedea zela eredu izatea, gizarteak uler zezan, ordurako aurreikusten zen krisiaren hedaduraren aurrean, Nafarroako Gobernuak jarrera doi eta arduratsua hartzen zuela.

Hala ulertu zuen gizarteak, eta, harrezkero, Espainia osoko eta Nafarroako hainbat erakundek (oraindik orain Iruñeko Udalak eta are berrikiago parlamentu-taldeek) antzeko neurriak onestearen aldeko jarrera agertu dute.

Hala eta guztiz, alderdi kuantitatiboa garrantzitsuena ez bada ere, oraindik ez dakigu zer portzentajetan igoko diren ordainsariak 2009an. Beraz, ez dakigu zehatz-mehatz zenbat diru aurreztuko duen Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiaren ondorioz, alegia, Gobernuko kideen eta Foru Komunitateko Administrazioako gainerako goi-karguen ordainsariak ez igotzeko erabakiaren ondorioz.

Dena dela, gutxi gorabeherako kalkulu bat egi-tearren, honako datu hau erreferentziazat har dezakegu: 2007an ordainsari horiek 7.099.051,36 eurokoak izan ziren; beraz, portzentajearen puntu bakoitza 70.990,50 euro dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:  
Javier Caballero Martínez

## **Galdera, “Biosegurtasunerako eta ingurumen-hobekuntzetarako dirulaguntzak abeltzaintzako instalazio intentsiboei” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du “Biosegurtasunerako eta ingurumen-hobekuntzetarako dirulaguntzak abeltzaintzako instalazio intentsiboei” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 20eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du “Abeltzaintzako instalazio intentsiboetarako diru-laguntzak, biosegurtasunean eta ingurumen-hobekuntzetan inbertitzeko” izeneko aurrekontu-sailaren aplikazioari eta gauzatzeari buruz (7-08/111 ahozko galdera, gero idatzizko galdera bihurtutakoa). Hona hemen Landa Garapeneke eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Laguntza-mota horri aurrekontu-sailaren 7. kapitulua dagokio. Onuradunen enpresetan inbertsioak egitea du helburu eta 2008ko gastuen aurrekontuan ageri da: 721002-72230-7700-412106(\*\*) “Abeltzaintzako instalazio intentsiboetarako diru-laguntzak, biosegurtasunean eta ingurumen-hobekuntzetan inbertitzeko”, 500.000 euroko diru-horniduraz.

2.- Inbertsioak direnez eta gehienak hurrengo urtean edota bi urteren buruan amaitzen direnez, arauak hainbat urtetarako ordainketak aurreikusi behar ditu. Beraz, arau horrek hainbat urtetarako gastuei dagokien baimena izan behar du.

3.- Arauaren zirriborroa egiteko prozesuan Departamentuko hainbat unitatek parte hartu dute, Nekazaritzako Elikagai Industrien eta Nekazaritzako Ustiatzearen Zerbitzuaren koordinaziopean eta Landa Garapenekeko Zuzendaritza Nagusiaren onespenerekin. Batez ere Abeltzaintza Zerbitzuak, Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiak eta ITG Ganadero enpresa publikoak hartu dute parte.

4.- Idazkaritza Tekniko Nagusiak ere aztertu du arauaren zirriborroa eta ziurtatu du betetzen dituela bai Europar Batasuneko araudiko baldintzak, bai Estatuak nekazaritza-ekoizpenerako ematen dituen laguntzen 1857/2007 araudia.

5.- Maiatzaren 9an zirriborro hori bidali zitzaientzako sektoreko ordezkariari, haiek ikus zezaten eta zegozkien ekarpen eta alegazioak egin zitzaientzako, maiatzaren 23a baino lehen, egun horretan amaitzen baitzen epea.

Erakunde profesionalei (UAGN, EHNE) eta kooperatiben sektoreari (UCAN) egin zitzaientzako kontsulta.

EHNE sindikatuak soilik egin zituen alegazioak. Epez kanpo aurkeztu bazituzten ere, aintzat hartu dira alegazio horietako baten zenbait alderdi.

6.- Horrelako arauen kasuan komunikazio-prozedura bat jarraitu behar da: estatuak ematen dituen laguntzen berri izan behar dute Bruselan. Prozedura horri ekin zaio, baina amaitu gabe dago oraindik.

7.- Inbertsioak egiteko laguntzak emateko arau guztiek ezaugarri komun bat dute: argitaratzen diren ekitaldian gastu-ahalmen txikia dute. Araua onesteko prozedurek, eragin sustatzailearen printzipioak –eskabidea aurkeztu baino lehenago egindako ekintzak ez finantzatzea eragiten duenak– eta inbertsioak amaitzeko epe luzeek gastua gauzatzea oztopatzen dute.

Gastuak eta ordainketak, berriz, hurrengo ekitaldian eta ondorengoetan egin beharko dira, orduan amaituko baitira inbertsioak.

Horregatik, kasu honetan, laguntzak urtero eman beharrean, laguntza-araubide bat ezarri da, Europako Batzordeak aurreikusitako epe guttirako (2013 bitartean) eta urtero argitaratuko da dagokion deialdia, betiere Europar Batzordeari komunikatzeko bete behar diren izapide guztien ostean onetsi eta argitaratuko den arauari jarraiki.

Ondorioz, kontusail berri hori 2008an sartu da, baina urteroko diru-hornidura puntuala izan beharrean (azaldu dugu inbertsioak ezin direla aurtengo ekitaldian burutu) estatuak emandako laguntza-araubidea jarri da ingurumenaren eta biosegurtasunaren alorreko inbertsioak sendotze-

ko nekazaritza-ustategietan. Gainera, ohiko laguntzak jasotzeko modurik izan ez dutenak ere izanen dira onuradunen artean.

#### ONDORIOAK:

a) Horrelako laguntzetan ohikoak diren erritmo eta epeetan ari da abian jartzen neurria.

b) Estatuak emandako laguntzen araubide bat ezartzea erabaki da, Europako Batzordeak zehaztutako gehieneko eperako (2013ko amaierara arte).

c) Inbertsio-motei erreparatuz, urte batzuetarako gastua konprometitzen duen laguntza-araubidea ezartzea eta inbertsioak burutzeko bi urteko epea jartzea komeni da.

d) Sektorearentzat onuragarria izanen da, guztizko diru-hornidura aurreikusitakoa baino askoz ere handiagoa izanen delako.

e) Kontusail horren helburuak aise gaudituko dira, urte batzuetarako laguntza-araubidea eratuko baita, 2013ra arte indarrean egonen diren laguntza publikoen multzoa antolatzeko.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko urriaren 8an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

## Galdera, Prodecasarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Prodecasarekin sinatutako hitzarmenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 19ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Angel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Prodecasarekin sinatutako hitzarmenari buruz (PES-269/08). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Hitzarmen hori sinatu gabe dago oraindik. Hitzarmenaren zirriborroa amaitzen ari dira orain, Departamentuko eta Prodecasako ordezkariak bilera batzuk egin ostean.

Dena dela, hitzarmenaren zirriborroak 4. ekin-tza jasotzen du: "Prezioen behatokia" Ekintza horri dagokionez, Prodecasak aurkeztutako memorian bertan ageri den informazioaren laburpena honako hau da:

– Urteko iraupena, urtarriletik abendura bitartean.

– 20 erakunde parte-hartzaile erreferentzia-puntu gisa.

– 15 erreferentzia-produktu.

– Datuak astero ematea.

– Jarraipen-bilerak hiruhilero.

– Datuak eta azterketen emaitzak ezagutarazteko egitura izatea.

Litekeena da hitzarmena datorren urrian sinatzea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko urriaren 8an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

## **Galdera, Nafarroako trenbide zaharrak lehengoratu eta bide berdeen moduan erabili ahal izateko plana eta Nafarroan dauden bide berdeetarako plan integrala prestatzeko Nafarroako Gobernuak eginiko jardueri buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako trenbide zaharrak lehengoratu eta bide berdeen moduan erabili ahal izateko plana eta Nafarroan dauden bide berdeetarako plan integrala prestatzeko Nafarroako Gobernuak eginiko jardueri buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 19ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako trenbide zaharrak bide edo bide berde gisa berreskuratzeari buruz, eta Nafarroan dauden bide berdeen plan integralari buruz (PES 272/08). Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak garatutako ekintza hauen berri ematen du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak:

– 2001etik 2004ra bitartean, garai hartako Ingurumen Ministerioarekin egindako lankidetzaz

hitzaurrearen baitan, bi errege-abelbide sailkatzeko, mugatzeko eta zedarrizteko lanei ekin zitzaion: "Ebroko Iraganbide Nagusia" eta "Probinztietako Errege Abelbidea". Lan horiek 1.180.000 euroko kostua izan zuten.

– 2007 eta 2008an, Biodiversidad Fundazioarekin egindako hitzaurrearen baitan, hainbat abelbide sailkatzeko lanei ekin zaie Izaban, Zaraitzu ibarrean, Fiteron, Cascanten, Ablitassen, etab. Halaber, errege-abelbide batzuk hobetzeari eta egokitzeari ekin zaio: Milagrotik Aezkoara, Orbaitatik Andiara, Murillo el Frutotik Zaraitzura, eta Taustetik Urbasa-Andiara. Bi urte horietan 524.000 euro gastatu dira.

– Landa Garapen eta Ingurumen Ministerioan natura-inguruneaz eta baso-politikaz arduratzen den zuzendaritzarekin egindako bileran proposatu dugu beste lankidetzaz hitzaurre bat egitea, abelbideen foru-sarea berreskuratze lanekin jarraitzearen.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko urriaren 9an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

## **Galdera, 2008ko Nafarroako aurrekontuetan kontusail izendunak, aldatuak izan direnak, zituzten entitate artistikoekiko hitzarmenei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du 2008ko Nafarroako aurrekontuetan kontusail izendunak, aldatuak izan direnak, zituzten entitate artistikoekiko hitzarmenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 19ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du erakunde artistikoekin egindako hitzarmenei buruz. Hona Vianako Printzea Erakunde-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1. 2008ko Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetan kontusail izendunak dituzten entitate artistikoekin egin diren hitzarmenetatik zein aldatu dira ekainean, uztailean eta abuztuan, 2008ko aurrekontuetan esleitutakoarekin alderatuz?

Hitzarmen bat soilik aldatu da, Iruñeko Ganbera Abesbatza Taldearekin egindakoa, hain zuzen.

2. Zein entitatek sinatu behar izan dituzte 2008ko aurrekontuetan ezarritako kopuruak baino zenbateko txikiagoko hitzarmenak?

Iruñeko Ganbera Abesbatza taldeak soilik sinatu du 2008ko aurrekontuetan zehaztutako kopurua baino txikiagoko hitzarmena. Dena dela, horren arrazoia da hitzarmen hori sinatzeko unean Ekonomia eta Ogasun Departamentuak agindutako hasierako gastuen aldi baterako erreserbak jada eragina zuela kontusail horretan. Une hauetan, erreserba horren eraginpean dauden kontusailak aldatzeko aukera dagoenez, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari proposatu zaio Iruñeko

Ganbera Abesbatza taldeari dagokion kontusail izendunaren gainerako kopurua libratzea eta talde horri ematea, aurreikusita zegoenari jarraiki.

3. Zer prozedura erabili da hitzarmen berriak jakinarazteko eta sinatzeko?

Urte hasieran, aurrekontua onartu ostean, harremanetan jarri ginen, posta elektronikoz bidez, aurtengo ekitaldirako Nafarroako Gobernuko aurrekontu orokorretan kontusail izenduna zuten erakunde artistiko eta kultural guztiekin, eta haiei zegozkien diru-laguntzak emateko espedienteak hasteko beharrezko dokumentazioa eskatu ginen. Eskatutako dokumentazioa jaso ondoren hasten da administrazio-tramitea:

– Aurkeztutako dokumentazioa aztertzea, diru-laguntzei buruzko abenduaren 9ko 11/2005 Foru Legearen arabera.

– Hitzarmena idaztea.

– Txostena eta foru agindua/ebazpena diru-laguntza emateko, eta laguntza arautuko duen hitzarmena onestea.

– Hitzarmena sinatzea.

– Ordainketa eskaera, aurrerakin gisa.

– Ordainketak, betiere gastuak justifikatu ostean.

Iruñeko Ganbera Abesbatza taldearen kasuan, Kultur Jardueren Zerbitzuko deialdi eta laguntzen atalaren bidez azaldu zitzaien egoera, eta hitzarmena sinatu zen. Jakinarazi zitzaien, halaber, litekeena zela urtean zehar jasotzea aldi baterako erreserbapean zegoen kopurua. Iruñeko Ganbera Abesbatza taldeko presidente Luis Felipe Sarasa Garcíak eta Kultura zuzendari nagusi Pedro Luis Lozano Úrizek sinatu zuten hitzarmena abuztuaren 27an.

Iruñean, 2008ko urriaren 9an

Vianako Printzea Erakunde-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, etxeko laguntza pertsonala emateko laguntzei eta laguntzaile pertsonalerako eta minimo bermatuentzako laguntzei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ana Figueras Castellano jaunak galdera egin du etxeko laguntza pertsonala emateko laguntzei eta laguntzaile pertsonalerako eta minimo bermatuentzako laguntzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 19ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du “Laguntzak, etxeko laguntza pertsonala emateko” eta “Laguntzak, laguntzaile pertsonalerako eta minimo bermatuentzako” kontusailen kreditua handitzeari buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, esan behar da laguntza ekonomikoen finantzaketa dela kontusail horien helburua, izenak adierazten duen bezala, eta, hain zuzen ere, haien aurrekontu-kreditua handitu egin dela. Horixe da handitu dena, eta ez langileen ordainsariak edota toki-entitateei emandako diru-kopuruak, haiek beste kontusail batzuen bidez finantzatzen baitira.

Dena dela, komeni da gogoan izatea Gizarte Zerbitzuen Zorroak egindako planteamendua, mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako baliabideen eta laguntza ekonomikoen bateratasunari buruzkoa.

Haren arabera, bateragarriak dira etxeko laguntza-zerbitzua, larrialdietako telefono zerbitzua, eguneko zentroak, eta mendekotasuna duten pertsonen eta familiakoei haien inguruan ematen zaien laguntza. Beraz, ezin esan dezakegu harreman zuzena dagoenik mendekotasun-egoeran dauden pertsonen emandako laguntzaren eta etxeko laguntza-zerbitzuetako langile gehiago jartzearen artean.

Laguntza jasotzen duten pertsonen aukeraketa dute, banakako arreta-programaren bidez, zein baliabide bateragarri erabili nahi dituzten.

Gainera, lehen aipaturiko kontusailentako diru-kopuruak handitzeko erabilitako funtsen jatorriari dagokionez –ulertu baitugu jatorri horri egiten diola erreferentzia zure galderak– hau esan behar dugu:

Lehenik, adierazi behar da buru-osasuneko zentroen kudeaketarako kontusailaren bidez finantzatzen direla Nafarroako Mendekotasun Agentziak buru-osasuneko zentroak kudeatzeko sinatzen dituen kontratazio administratiboak. Aurrekontuetan esleitutako diru-kopurua 2008ko kontratazio guztiak ordaintzeko modukoa izan da, eta, gainera, soberakin txiki bat geratu da. Soberakin hori erabili da, hain zuzen, galderan aipatutako kontusailak handitzeko.

Gutxitasunen bat dutenentzako berezko zentroetan egindako inbertsioei dagokienez, alor horretako inbertsio handietan (esate baterako Las Hayas eta Oncineta zentroetako inbertsioetan) ez da aldaketarik egin eta aurreikusitakoa aplikatu da. Aurrekontuetan aurreikusitako inbertsioetako bat –Infanta Elena eguneko zentroa– ez da gauzatu, baliabide horren eskaririk ez zegoelako.

Ondorioz, kontusail horretan soberakina sortu da. Gainera, soberakin hori handiagoa da Las Hayas zentroa eraikitzeko kontrata duen enpresak hasierako aurrekontua baino prezio merkeagoa egitea proposatu duelako. Beraz, funts horiek ere erabili dira hizpide ditugun kontusailak handitzeko.

Azkenik, haur eta gazteentzako berezko zentroetako inbertsioen kasuan, erabilitako funtsak alor horretan aurreikusitako jarduera jakin bati dagozkio. Izan ere, azkenean jarduera hori atzera bota da, sortuko litzatekeen baliabidea ez dela egokiena iritzi baitzaio. Aurreikusita zegoen San José zentro zaharraren eraikin-multzoko txalet bat eraberritzea, oraingo Araray zentroa handitzeko. Baina, esan bezala, azkenean proiektu hori baztertu egin da arrazoi teknikoengatik, eta bestelako soluzioak aztertzei ekin zaio.

Iruñean, 2008ko urriaren 8an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## Galdera, “Xabierko Frantziskoren Kultura Ibilbidea” izeneko kontusailari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du “Xabierko Frantziskoren Kultura Ibilbidea” izeneko kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 19ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Xabierko Frantziskoren Kultura Ibilbidearekin loturiko zenbait xehetasuni buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1.- Kontusailaren helburu zehatza.

*Xabierko Frantziskoren Kultura Ibilbidea* sustatzen jarraitzea, Gizateriaren Ondare izenda dezaizen.

2.- Aurreko urteetako jardueraren balantzea. Ordaindutako kopuruak eta abiarazitako ekintzen xehakatzeko zorroztza.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua 2001ean hasi zen Xabierko Frantziskoren Kultura Ibilbidearen prozesua kudeatzen. Urte horietako garapenean hiru fase bereizi daitezke:

a) Ondare ez-material izendatzeko hautagaitza (2001-2004)

b) Ondare material izendatzeko hautagaitza (2005-2006)

c) Ondare unibertsal izendatzeko hautagaitza (2007tik aurrera)

a) Ondare ez-material izendatzeko hautagaitza

2001ean hasi zen garatzen *Xabierko Frantziskoren Kultura Ibilbidea* Gizateriaren Ondare izendatzeko hautagaitzaren aurkezpena. Hastapenetan *Xabierko Frantzisko eta Ekialdeko Ibilbidea*

deitu zitzaion. Lehen fase horretan Departamentua bera arduratu zen kudeaketaz.

2001eko ekainean ondare ukiezinei eta kultura-ibilbideei buruzko nazioarteko biltzarra egin zen Nafarroan, ICOMOS erakundearekin lankidetzan, eta haren ondorioz ekin zitzaion proiektuari.

Espainiako zein nazioarteko ICOMOS erakundeek interesa adierazi zuten eta *Xabierko Frantziskoren Kultura Ibilbidea* Gizateriaren Ondare Ez-materialen zerrendan sartzearen alde agertu ziren. Arte Ederretako Zuzendaritza Nagusiak ere proiektua babesten zuela adierazi zuten.

Proposamena 2003ko urriaren 31n aurkeztu zen estreinakoz, Ondare Historikoaren Kontseiluak Aranjuezen egindako bilkuran. Kultura Ministerioa aldatu berria zen, 2003ko hauteskundeetan ostean, eta Ondare Historikoaren Kontseiluak ezezkoa eman zuten.

2004ko apirilaren 2an Ondare Historikoaren Kontseiluak Santa Cruz de Tenerifen egin zuen bilkura. Ordura bitartean Ondare Ez-materialen zerrendan sartzea planteatu bazen ere, bilkura horretan Ondare Materialen zerrendan jartzea proposatu zuten, Arte Ederretako Zuzendaritza berriaren iritziz bi motatako ondareak biltzen baititu kultura-ibilbideak, bai ez-materiala, bai materiala. Ondare Historikoaren Kontseiluak proposamena onartu zuten, espedientearen aurkezpena Xabierko Frantziskoren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzerekin batera egin nahi baitzuten. Aldaketa horrek espedientea berregitea zekarren, beste modu batean bideratu behar baitzen. Beraz, berriro hasi behar izan zen espedientea.

b) Ondare Material izendatzeko hautagaitza

2005eko otsailaren 1ean Ondare Historikoaren Zerbitzuaren Zuzendaritzak lehiaketa deitu zuen *Xabierko Frantziskoren Kultura Ibilbidea* espedientearen idazteko laguntza kontratatzeko.

Esleipen-kontratua 2005eko martxoaren 10ean sinatu zen: 20.900 euro izan ziren guztira, 2005eko Nafarroako Aurrekontu Orokorren A20001-A2-2276-337100 (Proiektuak, ikerketak eta dokumentazioa) kontusailaren bidez finantzatuak.

Ondare Historikoaren Kontseiluaren bilkura egiteko deia egin zuen Kultura Ministerioak, eta 2005eko ekainaren 16 eta 17an bildu ziren L'Esca-

lan (Girona). Xabierko Frantziskoren Ibilbide Unibertsalaren hautagaitza aurkeztearren, hiru dokumentu egin ziren:

– Xabierko Frantziskoren Ibilbide Unibertsalaren espedientearen idazketa (ICOMOSeko Kultura Ibilbideen Nazioarteko Batzordeak zehaztutako jarraibideen arabera).

– Espediente horren laburpenaren argitalpena (54 ale banatu ziren autonomia-erkidegoetako ordezkarien artean).

– PowerPoint euskarri informatikoan egindako dokumentua, modu grafikoan laguntzen duena hautagaitzaren azalpenean eta defentsan.

Dokumentazio hori aurkeztean, amaitutzat ematen da lehiaketa bidez esleitutako kontratuan eskatutako lana.

Bilkura hartan defendatu zen hautagaitza. Hala ere, Kultura zuzendari nagusiak uko egin zion hautagaitza aurkezteari, jardunaldiak antolatu zituen autonomia-erkidegoak aurkeztutako hautagaitzarekiko begirunez, eta Arte Ederretako Zuzendaritza Nagusiarekin itundu zen hurrengo urteko bilkuran aurkeztu eta onartuko zela Nafarroako Gobernuaren proposamena.

Ondorioz, Teide (Kanarietako Gobernu) eta L'Albera (Katalunia) hautatu zituzten, eta Nafarroako Gobernuaren hautagaitza 2006rako utzi zuten. Bilkura hartan aipatu ziren ñabardura batzuk, espedientearen aintzat hartu behar zirenak.

Ñabardura horiek zirela eta, Kultura Zuzendaritza Nagusiak 7.100 euroko beste kontratu bat onetsi zuen, azaroaren 30eko 547/2005 Ebazpenaren bidez. Kontratuaren xedea zen espediente jarraitzea eta fase berri horretan kontuan hartzea bilkuran egindako iradokizunak.

2006ko ekainaren 29 eta 30ean Iruñean eta Xabierren egin zen Ondare Historikoaren Kontseiluaren bilkura, Kultura Ministerioak deituta. Xabierko Frantziskoren Ibilbide Unibertsalaren hautagaitza aurkeztu eta defendatu zen bilkura horretan. Aho batez onetsi zuten, eta hala jaso zuten aktan:

“Ondare Historikoaren Kontseiluak aitortzen du eta eskertzen du Nafarroako Gobernuak azken urteotan egindako ahalegina Xabierko Frantziskoren Kultura Ibilbidearen espediente gauzatzeko. Halaber, Ondare Historikoaren Kontseiluak aho batez onetsi du Xabierko Frantziskoren bidea ibilbide unibertsal izatea. Horretarako nazioarteko laguntza premiazkoa da; beraz, Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu beharrezko urratsak egin ditzala, ibilbide horretan dauden herrialde guztiek

berdintasunean parte har dezaten hautagaitzaren prestaketa-lanetan.

Hartara, ibilbide horrek dakarren kultura-trukearen ikuspegi osoagoa izateaz gain, herrialde guztien ikuskerak integratuko dira, ez soilik Xabierko Frantziskori buruzkoak, baizik eta, batez ere, Eki-aldeko eta Mendebaldeko kulturen arteko eraginaren trukeari buruzkoak.”

Espediente hori Ondare Historikoaren Kontseiluak egindako gomendioetara egokitzearen, 10.500 euroko beste kontratu bat sinatu zen 2006ko uztailaren 17an, 2006ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren A20001-A2110-2276-337100 kontusailaren bidez finantzatua.

2006. urtearen amaiera bitartean hautagaitzarako espedienteak are gehiago osatu zen, eta UNESCOren nazioarteko batzordeko José M<sup>a</sup> Ballester Fernándezekin hainbat kudeaketa egin ziren. Proposatu zen, aurretiazko neurri gisa lortu behar zela kultura-ibilbidea Munduko Ondarearen Zerrendan sartzea, eta Europako Kontseiluaren kultura-ibilbideen programan ere bai. Baina, Ballesterrek berak adierazi zuenez, helburu horiek lortzeko “beharrezkoa da, Xabierko Frantziskoren dimentsio unibertsalagatik, Espainiako Erresumaren eta Gobernuaren laguntza. (...) laguntza hori beharrezkoa da, batik bat, abian dauden bi proiektuen kanpo-proiektzioarako. Bide diplomatikoen bitartez tramitatzen dira bai UNESCOren Munduko Ondarearen Zerrendan inskribatzea bai Europako Kontseiluaren kultura-ibilbideen programan sartzea, eta Espainiako Erresumako ordezkari diplomatikoek parte hartu behar dute erabaki horiek hartzeko prozesuetan.

Beraz, garrantzi handia du Kanpo Arazoetako Ministerioaren laguntza izateak.”

Azkenik, 2006ko abenduan Kulturako Konferentzia Sektoriala egin zen Iruñean, eta han ere aztertu zuten Xabierko Frantziskoren Kultura Ibilbidearen gaia. Antolaketa-gastuak 8.267,50 eurokoak izan ziren, abenduaren 15eko 788/2006 Ebazpenaren bidez baimenduak eta 2006ko aurrekontuetako “Xabierko Frantziskoren Kultura Ibilbidea” kontusailaren bitartez finantzatuak.

c) Ondare Unibertsal izendatzeko hautagaitza (2007tik aurrera)

2007an Departamentuak bazuen kontusaila bai Xabierko Frantziskoren Kultura Ibilbidearen espediente idazteko ardura zuen taldearentzako laguntza teknikoaren kontratazio-gastuei aurre egiteko, bai Ondare Historikoaren alorreko pertsona ospetsuek egindako kudeaketak ordaintzeko. Kudeaketa horien helburua zen kultura-ibilbideare-



kin lotura zuten beste herrialdeen inplikazioa lortzea (Portugal, Frantzia, Italia, Japon eta abarren inplikazioa, alegia).

Kanpo Arazoetako Ministeriora jo zuen Nafarroako Gobernuak, espedientearekin zerikusia zuten herrialdeekiko harremanak hasteko, India eta Japon lehenetsiz. Aldi berean, Yamagutxiko Prefekturarekin ere harremanak zituen Nafarroako Gobernuak, baina Ministerioak egin beharreko kudeaketen emaitzaren zain zegoen. Kanpo Arazoetako Ministerioak erantzunik ematen ez zenez, proiektuari laguntza teknikoa emateko kontratazio berririk ez zela behar erabaki zen. Beraz, 2007ko kontusail hori ez zen erabili.

Hala ere, etorkizunean Estatuko Gobernuaren laguntza handiagoa lortuko zelakoan, hautagaitzarekiko beste atxikimendu batzuk lortzeko lanari eutsi zitzaion eta kontusail horrek hurrengo urteko aurrekontuetan jarrai zezala erabaki zen.

3.- Abiarazitako ekintzak eta kontusailaren gaur egungo egoera.

2008an proiektu horren alorreko jarduerarik ez da egin. Urriaren 2ko agerraldian azaldu bezala, kontusaileko kopuru guztia erabili da Departamentuko kredituen aldi baterako erreserbaren premiak betetzeko. Luze jo dezakeen proiektua denez, bai Gobernuak bai Alderdi Sozialistak irizten diote aldi baterako erreserbaren eraginpean gera daitekeen kontusaila dela, etorkizunean garatzeko zain.

4.- Izendapena lortzeko aukerak eta hurrengo urteetarako aurrekontu-aurreikuspenak.

2007az geroztik garbi geratu da orain gauden fasean eta hemendik aurrera izendapena lortzeko

aukera, neurri handi batean, Espainiako Gobernuaren eskuetan dagoela. Proiektuari eman behar dion babesa erabakitzailea izanen da, bai eta beste herrialdeekiko harremanak sustatzeko borondatea ere, hautagaitza elkarrekin aurkezteko. Nafarroako Gobernuak jakin badaki oso kudeaketa konplexuak egin behar direla proiektu hori aurrera ateratzeko, baina, hala ere, espero du etorkizunean egitasmo hori garatzea eta helburuak lortzea. Aurrekontu-aurreikuspenak, berriz, espedientearen bilakaeraren arabera izanen dira betiere, eta aurrekontu-egoeraren arabera ere bai.

5.- Gobernuak ekimenaren bilakaeraz egiten duen irizpen orokorra.

Xabierko Frantziskoren Kultura Ibilbidea prozesu konplexua eta zaila da, oso faktore ezberdinek eragiten baitute batera. Nafarroako Gobernuak ahalegin garrantzitsu bat egin du gure lurraldearen kultura eta ondarea sustatzeko, gure izen entzute-tsuena hedatzeko eta gure legatu materiala eta ez-materiala babesteko. Prozesu horretan egin diren harremanak eta lortu diren emaitzak (Ondare Historikoaren Kontseiluak hautagaitza onartzea, esate baterako) baliagarriak izan dira Xabierko San Frantzisko hobeto ezagutarazteko eta, harekin batera, Nafarroa eta Nafarroako ondarea ere hobeto ezagutarazteko.

Asmo handiko proiektua da eta epe luzera begiratu behar dugu. Garatzeko aukera izanen du etorkizunean, baldin eta egoera ekonomikoak Departamentuaren gainerako jarduerekin batera sustatzea bideratzen badu.

Iruñean, 2008ko urriaren 9an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, “Garapenerako lankidetzaren Nafarroako Agentzia” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du “Garapenerako lankidetzaren Nafarroako Agentzia” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Javier Monzón Romé jaunak ahozko galdera egin du Garapenerako Lankidetzako Nafarroako Agentzia sortzeko kontusailari buruz. Idatziz erantzuteko galdera bihurtu da gero galdera hori. Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

900000 91000 2269 233102 kontusailak, “Garapenerako Lankidetzako Nafarroako Agentzia sortzea” izena duenak, ikerketa bat egitea du helburu, Nafarroako Foru Komunitatean nazioarteko garapen-lankidetzaren alorreko proiektuak kudeatzeko erakunde autonomo bat sortzeko ahalbideak aztertzearen.

Kontusailaren hasierako kreditua 100.000 eurokoa zen, eta ez da ezertarako erabili. Ez erabiltzearen arrazoia hau izan da: Gizarte Gaietako eta Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiak iritzi dio komeni dela lehenik aztertzea Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Zerbitzua lan-kargak eta egin beharreko jarduerak. Lehenengo azterketa hori barne-azterketa izanen da –ez da aurrekontuetako dirurik erabili behar, beraz– eta aurtengo abenduan amaituko da.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, “Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du “Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Javier Monzón Romé jaunak ahozko galdera egin du “Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak” kontusailaren gauzatzeari eta aplikazioari buruz. Gero idatziz erantzuteko galdera bihurtu da galdera hori. Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

900003 91600 4809 231500 kontusailak, “Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak” izenekoak, arrazoi ekonomikoengatik gizarte-bazterkeria egoeran dauden Nafarroako herritarren oinarrizko premiak asetzea du helburu. Kontusail

hori aplikatuz, gure gizarteko sektore behartsuek pairatzen duten pobrezia larria arindu eta haien bizi-kalitatea hobetu behar da.

Helburu horretarako, kontusaileko kreditua erabiltzen da laguntza ekonomiko batzuk finantzatzeko: oinarrizko errenta, gizartean txertatzeko ezohiko laguntzak, eta integrazio familiarra eta soziala sustatzeko laguntzak.

Irailaren 31 bitartean, laguntza horietako bakoitza jasotzeko eskaera-kopuru hauek aurkeztu dituzte:

– Oinarrizko errenta: 3.792

– Gizartean txertatzeko ezohiko laguntzak: 769

– Integrazio familiarra eta soziala sustatzeko laguntzak: 25

Kontusailaren hasierako kreditua 6.830.000 eurokoa zen. Kreditu hori handitu egin dugu, egungo 8.345.009,86 eurotara iritsi arte. Gaur egun, 8.335.773,21 euro erabiltzeko baimena eta xedapena dugu, eta haietatik 6.785.430,49 euro jada konprometituta dauzkagu.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, “Zahar-etxeen kudeaketa” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du “Zahar-etxeen kudeaketa” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Javier Monzón Romé jaunak ahozko galdera egin du “Hirugarren adineko zentroyen kudeaketa” kontusailaren gauzatzeari eta aplikazioari buruz. Gero idatziz erantzuteko galdera bihurtu da galdera hori. Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

920004 91820 2279 231400 kontusailak, “Hirugarren adineko zentroyen kudeaketa” izena duenak, administrazio-kontratazioen finantzaketa du helburu. Kontratazio horien bidez, Mendekotasunaren Nafarroako Agentziak adineko pertsonen

esku jartzen ditu egoitzetako eta eguneko zentroyetako plazak.

Kontusailaren hasierako kreditua 26.353.891,00 eurokoa zen, eta haietatik 21.078.048,21 euro erreserbatuta daude, hirugarren adineko zentroyen kudeaketarako kontratueta hartutako konpromisoak betetzeko urtearen amaiera bitartean. 19.188.560,23 euro baimentzeko eta xedatzeko fasean daude, eta beste 14.356.962,49 euro betebeharr-fasean.

Kontusailaren gainerako kopuruari dagokionez, haren zati bat erabiliko da CONCERTED programaren baitan eginen diren hitzarmen berrien ondorioz sortuko diren betebeharr berriei aurre egiteko. Programa horren bitartez, 400 plaza itunduko dira mendekotasun handia edota 2. mailako mendekotasun larria duten adineko pertsonentzako. Pertsona horiek egoitza pribatueta daude gaur egun, zerbitzuari lotutako laguntzarekin edo laguntzarik gabe. Kontratu horiek betetzearren hainbat jarduera egin behar dira: balioztatzea, baldintza teknikoak argitaratzea, eta kontratuak egitea. Beraz, jarduera horiek egiteko beharko den erritmoaren arabera erabiliko da kontusail guztia.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, “Laguntzak, etxeko laguntza pertsonala emateko” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du “Laguntzak, etxeko laguntza pertsonala emateko” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Javier Monzón Romé jaunak ahozko galdera egin du “Etxean bertan ematen diren zerbitzu pertsonalentzako laguntzak” kontusailaren gauzatzeari eta aplikazioari buruz. Gero idatziz erantzuteko galdera bihurtu da galdera hori. Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

920006 91830 4809 231402 kontusailak, “Etxean bertan ematen diren zerbitzu pertsonalentzako laguntzak” izenekoak, laguntza ekonomikoen finantzaketa du helburu, mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza pertsonala izan dezaten haien inguru familiar edo sozialean.

Helburu horrekin onartu zen 2008rako laguntzen deialdia, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren urtarrilaren 28ko 22/2008 Foru Aginduaren bitartez.

Haren ondorioz, 6.087 pertsonak laguntza izan dute 2008an, eta, gaur egun, 5.493 pertsonak jasotzen dute laguntza hori.

Kontusailaren hasierako kreditua 28.700.000,00 eurokoa zen. Handitu zitekeen kontusaila izanik, hala egin dugu, eta, gaur egun, 31.169.000,00 eurora iritsi da kopuru hori. Kopuru osoa baimentze-fasean dago, 1.161.345,56 euro xedapen-fasean daude eta 24.032.746,01 euro betebehar-fasean.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, “Etxeko laguntza zerbitzua zabaltzea ‘365 eguneko beharra-365 eguneko zerbitzua’” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du “Etxeko laguntza zerbitzua zabaltzea ‘365 eguneko beharra-365 eguneko zerbitzua’” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Javier Monzón Romé jaunak ahozko galdera egin du “Etxeko laguntza zerbitzua zabaltzea: 365 eguneko beharra, 365 eguneko zerbitzua” kontusailaren gauzatzeari eta aplikazioari buruz. Gero idatziz erantzuteko galdera bihurtu da galdera hori. Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

920006 91830 4809 231404 kontusaila, “Etxeko laguntza zerbitzua zabaltzea: 365 eguneko beharra, 365 eguneko zerbitzua” izeneko, ez da oraingoz erabili.

Ez erabili izanaren arrazoia da gizarte-zerbitzuen sistema publikoa eraberritze prozesuan dagoela, jakinen duzuenek, Gizarte Zerbitzuen Foru Legearen bidez eta norberaren autonomia sustatzeko eta mendeko egoeran dauden pertsonen laguntza emateko legearen bidez. Lege horiek zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboak arautzen dituzte; bigarrenak mendekotasun-egoeran dauden pertsonak ditu helburu, eta lehenengoak, berriz, gizarte-zerbitzuak jasotzen dituzten kolektibo guztiak.

Diseinu berriak hainbat tresna erabiltzen ditu.

Lehenengoa aski ezaguna da: gizarte zerbitzu orokorren zorroa, Nafarroako Gobernuak onartua ekainaren 17an. Zorroak, dakizuenek, Nafarroako Gobernuaren ardura diren prestazio guztiak hartzen ditu (140 zerbitzu). Gainera, lehen mailako

arreta tokiko entitateen ardura izan arren, gutxieneko batzuk ezartzen ditu alor horretan, oinarritzko arreta bermatzeko Nafarroako herritar guztiei, bizileku duten udalerrria edozein izanda ere.

Ildo horri jarraiki, udalek ematen duten etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren gutxieneko ezaugarriak zehazten ditu. Zerbitzu hori arautzeko garaietan, gainerakoekin egin den moduan, udalen autonomia ahalik eta gehien errespetatzeko erabakia hartu da, haiek baitute zerbitzuaren ardura. Beraz, gutxieneko hori da ordu jakin batzuk eskatzea mendekotasun handia edota 2. mailako mendekotasun larria duten pertsonen laguntzeko, horixe baita Mendekotasun Legeak ezartzen duena.

Hala eta guztiz, jakin badakigu etxez etxeko laguntza zerbitzuak arreta eman behar diela beste kolektibo batzuei: pertsona adinduei, gutxitasunen bat izan arren mendekotasun egoeran ez dauden pertsonen, edota Estatuko legeen babesik ez duen mendekotasun mailaren bat dutenei.

Horregatik, badaude beste bi tresna, zerbitzu horretan nolabait eragitea helburu dutenak. Nolabait eragitea diot; izan ere, jakin badakigu udalek eta mankomunitateek arautu behar dutela etxez etxeko laguntza zerbitzua. Nafarroako Gobernuak egin dezakeena da, batetik, zerbitzu horren mantenturako laguntza ekonomikoa ematea, eta, bestetik, laguntza ahalik eta efizientzia eta efikazia handienaz ematea sustatzea.

Aipaturiko bi tresnak honako hauek dira: Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (2008-2012) eta Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen lau programak arautzen dituen Foru Dekretua.

Lehenengoa, Plan Estrategikoa, onetsi du dagoeneko Nafarroako Gobernuak; Nafarroako Parlamentura bidali du eta han onartu zain gaude. Bigarrena, foru dekretua, aurtengo bigarren seihi-lekoan gauzatu behar da.

Gainera, etxez etxeko laguntza zerbitzuen hainbat eredu aztergai izan ditugu aurren, gure egungo eredu hobetzeko, Plan Estrategikoaren eta Gizarte Zerbitzuen Zorroaren baitan. Aztertu dugu batik bat Asturiasko Printzerriko programa (Rompiendo Distancias), nolabait aplikatu daitekeen gure landa-inguruneetan.

Horregatik, ez dirudi egoki denik kontusail hori erabiltzea nolako eredia jarraitu behar den erabakitzen ez den bitartean.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

---

## **Galdera, “Familia elkartzeko gunea” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du “Familia elkartzeko gunea” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Javier Monzón Romé jaunak ahozko galdera egin du familien bilguneari dagokion aurrekontu-saila gauzatzeari eta aplikatzeari buruz. Gero idatziz erantzuteko galdera bihurtu da galdera hori. Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

950001 92200 2279 231505 kontusailak (Familien bilgunea) familiak elkartzeko gunek kudeatzeko administrazio-kontratazioak finantzatzea du helburu.

Kontusailaren hasierako kreditua 509.577 eurokoa zen. Haietatik 475.575,27 euro erreserbafasean daude, 381.677,09 euro baimentzeko eta xedatzeko fasean, eta 286.251,48 euro betebehare fasean.

Kopuru horiekin ekin zaio Iruñeko bi familia-bilguneen kudeaketarako urte osoko kontratuak finantzatzeari. Gainera, hirugarren kontratu baten lizitazioa gauzatzen ari da, Tuteran irekiko den bilgunea kudeatzeko. Ekitaldia amaitu baino lehen jarriko da abian hirugarren bilgune hori, beraz, kontratu horren esleipen-dataren arabera erabiliko da kontusaila.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

